Urretxuko udala

Esp. kodea: CPV 90611000
Titularra: HIRIGINTZA, OBRA ETA ZERBITZUAK

Gaia: KALE GARBIKETA ZERBITZUA

URRETXUKO UDALERRIAN KALE GARBIKETA ZERBITZUA KONTRATATZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA.	**PLIEGO DE CONDICIONES TÉCNICAS PARA LA CONTRATACIÓN DEL SERVICIO DE LIMPIEZA VIARIA DEL TERMINO MUNICIPAL DE URRETXU.**
1.- LEHIAKETAREN XEDEA.	**1.- OBJETO DEL CONCURSO.**
Urretxuko udalerriko bide eta kaleen garbiketarako eta antzeko zereginetarako zerbitzu publikoa (Nahitaezko Zerbitzuak) ematea du xede honako kontratu honek.	Es objeto del presente contrato la prestación del Servicio Público de Limpieza Viaria Urbana y otros afines (Servicios Obligatorios) en el municipio de Urretxu.
Ingurumena eta lan-osasuna gehiago zaintzen dituzten metodo, jardunbide eta produktuekin gauzatuko da zerbitzu hau, eta, besteak beste, hauek hartuko ditu beregain: hondakinen kudeaketa egokia eta ingurumenaren aldetik jasangarriak diren makinen erabilera.	Este servicio se ejecutará con los métodos, prácticas y productos más respetuosos para el medio ambiente y la salud laboral e incluirá, entre otros, la correcta gestión de los residuos o el uso de maquinaria ambientalmente sostenible.
Astelehenetik igandera bitartean, biak barne, emango dira zerbitzuak. Astelehenetik ostiralera bitartekoa gutxienez bost (5) langilerekin egingo da, abuztuan izan ezik; abuztuan, gutxienez lau (4) langilerekin egin ahal izango dira garbiketa lanak. Larunbat, igande eta jai egunetakoa, berriz, hiru (3) langilerekin egin beharko da, abuztuan izan ezik; abuztuan, gutxienez bi (2) langilerekin egin ahal izango dira garbiketa lanak. Bi kasuetan, 1.1 eta 1.2 eranskinetan ezarritako maiztasunari erantzungo zaie.	La prestación de los servicios se realizará de lunes a domingo, ambos inclusive. La limpieza de lunes a viernes se realizará al menos con cinco (5) personas, menos en agosto que se podrá realizar con un mínimo de cuatro (4) personas. Y la limpieza de los sábados, domingos y festivos se realizará con tres (3) personas operarias, menos en agosto que se podrá realizar con un mínimo de dos (2) personas. Atendiendo en ambos casos a las frecuencias establecidas en los anexos 1.1 y 1.2.
2.- ZER ZERBITZU EMAN.	**2.- SERVICIOS A PRESTAR.**
Plegu honetan zerrendatzen diren zerbitzuen multzoak osatzen du aurkeztu beharreko oinarrizko eskaintza, eta ezingo da egin hemen jasotakoa baino eskaintza murriztuagorik. Ez da aldaerarik onartuko.	El conjunto de los servicios que se relacionan en este Pliego constituyen la base de la oferta a presentar, bien entendido que no podrán hacerse ofertas más reducidas que lo comprendido en el mismo. Tampoco se permitirán variantes.
Plegu honetako hurrengo artikuluetan zehaztutakoaren arabera, ondorengo hauek izango dira: − Nahitaezko zerbitzuak.	Los servicios a prestar, según se definen en el posterior articulado del presente Pliego, serán los siguientes: − Servicios obligatorios.

Esp. kodea: CPV 90611000
Titularra: HIRIGINTZA, OBRA ETA ZERBITZUAK

Gaia: KALE GARBIKETA ZERBITZUA

NAHITAEZKO ZERBITZUAK.	**SERVICIOS OBLIGATORIOS.**
I.- KALEEN ETA ANTZEKOEN GARBIKETA.	**I.- LIMPIEZA VIARIA Y AFINES.**
- 1 Eskuz garbitzea espaloiak, galtzadak eta oinezkoen eremuak.	- 1 Barrido manual de aceras, calzadas y zonas peatonales.
- 2 Erratz-makinaz garbitzea espaloiak, galtzadak eta oinezkoen eremuak.	- 2 Barrido mecánico de aceras, calzadas y zonas peatonales.
- 3 Espaloi eta galtzaden erratz-garbiketa mistoa	- 3 Barrido mixto de aceras y calzadas.
- 4 Espaloiak eta galtzadak hidrogarbigailuaz garbitzea.	- 4 Pistoleo de aceras y calzadas mediante hidrolimpiadora.
- 5 Garbiketa larunbat, igande eta jai egunetan.	- 5 Limpieza en sábados, domingos y festivos.
- 6 Espaloiak eta oinezkoen guneak sakon garbitzea.	- 6 Limpieza intensiva de aceras y zonas peatonales.
- 7 Parke eta lorategien garbiketa.	- 7 Limpieza de parques y zonas ajardinadas.
- 8 Kainozulo, isurbide, estolda-zulo eta gainerakoak garbitzea.	- 8 Limpieza de sumideros, rejillas, imbornales y demás.
- 9 Hondakin-edukiontzien guneak eta inguruak garbitzea.	- 9 Limpieza de zonas de contenedores de residuos y sus alrededores.
- 10 Paperontziak hustea.	- 10 Vaciado de papeleras.
- 11 Olio edo koipe orbanak, etab,… garbitzea.	- 11 Limpieza de manchas de aceite, grasa, etc,…
- 12 Zuhaitzuloak garbitzea.	- 12 Limpieza de alcorques de árboles.
- 13 Eskailerak, korridoreak, arkupeak, e.a. garbitzea.	- 13 Limpieza de escaleras, pasillos, soportales, etc,…
- 14 Animalien gorotzak eta horrelako hondakinak erretiratzea eta garbitzea.	- 14 Limpieza y retirada de excrementos de animales y otros residuos asimilados.
- 15 Asteroko azoka garbitzea eta instalatzea.	- 15 Limpieza e instalación mercado semanal.
- 16 Herriko hilerria garbitzea.	- 16 Limpieza del cementerio municipal.

- 17 Santa Barbarako ermita inguruko aisiarako eremua garbitzea.	- 17 Limpieza zona de esparcimiento de la Ermita de Santa Bárbara.
- 18 Noizbehinkako garbiketak (feriak, kontzentrazioak, jaiak, kultur eta kirol ekitaldiak, e.a,…).	- 18 Limpiezas esporádicas (ferias, concentraciones, fiestas, eventos culturales, deportivos, etc,…).
- 19 Eskoletako jolastokiak garbitzea.	- 19 Limpieza patios escolares.
- 20 Haur parkeak garbitzea.	- 20 Limpieza parques infantiles.
- 21 Txakurren aisiarako eremuak garbitzea eta mantentzea.	- 21 Limpieza y mantenimiento de las zonas de esparcimiento de perros.
- 22 Karkabak garbitzea.	- 22 Limpieza de cárcavas.
- 23 Bizikletak garbitzeko gunea garbitzea.	- 23 Limpieza del área de limpieza de bicicletas.
- 24 Paperontziak garbitzea.	- 24 Limpieza papeleras.
- 25 Autobus markesinak garbitzea.	- 25 Limpieza marquesinas autobús.
- 26 Hostoen erorketa garaiko garbiketa.	- 26 Limpieza en época de caída de hoja.
- 27 Arazo jakinak dituzten eremuen garbiketa berezia.	- 27 Limpieza especial de zonas con una problemática concreta.
- 28 Elurte plana, izozte haundiak.	- 28 Plan de nevadas, fuertes heladas.
- 29 Berehalako garbiketa zerbitzua.	- 29 Servicio de limpieza de acción inmediata.
- 30 Larrialdietako plana.	- 30 Plan de emergencia.
- 31 Hildako animaliak jasotzea.	- 31 Recogida de animales muertos.
- 32 Garbiketan hartutako hondakinak jaso eta eramatea.	- 32 Recogida y traslado de los residuos retirados en la limpieza.
- 33 Pintadak, kartelak, pegatinak, pankartak eta banderolak.	- 33 Pintadas, carteles, pegatinas, pancartas y banderolas.
- 34 Udal igerilekuaren ingurua garbitzea.	- 34 Limpieza zona piscinas municipales.
- 35 Kontzientziazio kanpainak.	- 35 Campañas concienciación.

3.- ZERBITZUEN DEFINIZIOA ETA MAIZTASUNA.	**3.- DEFINICIÓN Y FRECUENCIA DE SERVICIOS.**
Bide publikoen garbiketa zerbitzurako, Udalak, orokorrean, honako kategoria hauek ezarri ditu:	Para el servicio de limpieza de las vías públicas el Ayuntamiento ha establecido de forma general las siguientes categorías:
- A eremuak: 5 aldiz astean, astelehenetik ostiralera. - B eremuak: 3 aldiz astean, astelehenetik ostiralera. - C eremuak: 2 aldiz astean, astelehenetik ostiralera. - D eremuak: Astean behin, astelehenetik ostiralera. - E eremua: Asteburuak eta jaiegunak.	- Zonas A: 5 veces por semana, de lunes a viernes. - Zonas B: 3 veces por semana, de lunes a viernes. - Zonas C: 2 veces por semana, de lunes a viernes. - Zonas D: 1 vez por semana, de lunes a viernes. - Zona E: Fines de semana y festivos.
Lizitatzaile bakoitzak garbiketan erabiliko dituen baliabideak proposatu beharko ditu, bai giza baliabideak, material baliabideak eta garbiketa sistemak, zerbitzua ahalik eta eraginkorrena izan dadin.	Los medios a utilizar para las limpiezas deberán ser propuestos por cada una de las licitadoras, tanto en medios humanos, como materiales y sistemas de limpieza, de forma que el servicio sea lo más eficiente posible.
Nolanahi ere, esleipendunak bete egin beharko ditu hurrengo lerroetan zehazten diren garbiketa mota edo sistema bakoitzaren definizioan adierazi litezkeen zerbitzu egutegiak/maiztasunak.	No obstante lo anterior, la adjudicataria deberá cumplir con aquellos calendarios/frecuencias de servicio que se puedan indicar en la definición de cada tipo o sistema de limpieza que se señala en las siguientes líneas.
Plano erantsietan jasota dator guneen banaketa (1.1 eranskina).	La distribución de zonas viene recogida en los planos adjuntos (anexo 1.1).
3.1.- ESKUZ GARBITZEA ESPALOIAK, GALTZADAK ETA OINEZKOEN EREMUAK.	**3.1.- BARRIDO MANUAL DE ACERAS, CALZADAS Y ZONAS PEATONALES.**
Espaloiak, pasealekuak, plazak, galtzadak, e.a,… xehetasunez garbitzea izango da lan hau, bereziki espaloien inguruetan. Era berean, zerbitzu honetan sartzen da espaloietan, galtzadetan, zintarrietan eta, oro har, bazterretan sortzen diren belarrak, sasiak eta gainontzeko zikinkeria garbitzea. Gardinga sortzeko joera dagoen guneetan produktu fitosanitario egokiak erabili ahal izango dira, eta	Este trabajo consiste en la limpieza detallada de aceras, paseos, plazas, calzadas, etc,..., muy especialmente en las proximidades de las aceras. En este servicio se incluye asimismo la eliminación de hierbas, matojos y demás suciedades que se originan en las aceras, calzadas, bordillos y esquinas en general. En las zonas propensas a la formación de verdín se

horretarako, lan hori egiteko ardura duten langileek dagokien gaikuntza izan beharko dute.	podrán utilizar productos fitosanitarios adecuados, para lo cual, el personal encargado de esta labor deberá contar con la habilitación correspondiente.
Eskuz egindako garbiketatik sortutako hondakinak Udalak ematen dituen aginduen arabera jaso eta botako dira. Esku-karroek poltsa eramango dute, zakar-ontzira eramaterakoan kalera zikinik erori ez dadin.	Los residuos procedentes del barrido manual serán recogidos y depositados de acuerdo a las indicaciones que al efecto establezca el Ayuntamiento. Los carros serán portabolsas, para evitar el derrame de residuos al efectuar la operación de descarga.
Eskuz erraztatzeko lanetan, hondakinak biltzeko orgak prestatuta egon behar du zaborra gaika jasotzeko, bereiz biltzeko gutxienez papera, organikoa, ontziak eta errefusa.	En las operaciones de barrido manual, el carro de recogida de residuos estará preparado para facilitar la recogida selectiva de basura diferenciando al menos recogida de papel, orgánico, envases y fracción resto.
Garbiketa mekanizatua egin ezin den eremuetan soilik aplikatuko da berariaz eskuzko garbiketa-zerbitzua.	La utilización del servicio de limpieza manual de forma exclusiva, únicamente se aplicará en las zonas en las que no sea posible su mecanización.
3.2.- ERRATZ-MAKINAZ GARBITZEA ESPALOIAK, GALTZADAK ETA OINEZKOEN EREMUAK.	**3.2.- BARRIDO MECÁNICO DE ACERAS, CALZADAS Y ZONAS PEATONALES.**
Garbitu behar den herriko gunearen ahalik eta zatirik handienean erraztatze mekanikoa erabiliko da. Dena den, makineriarekin batera eskuz garbitzeko osagarriak eramateko aukera aurreikusiko da, garbiketan mota biak konbinatzeko aukera izateko.	La mecanización del barrido será la máxima posible en la zona urbana objeto de limpieza. En cualquier caso, la maquinaria deberá prever la posibilidad de trasladar accesorios para la limpieza manual, de forma que ambos tipos de limpieza puedan combinarse.
Makina bereziak erabiliz bide publikoko galtzadak, espaloiak eta oinezkoen guneak garbitzean datza erraztatze mekanikoa, horietan ageri diren hondakinak, hondarrak, hautsak eta abar kenduz.	El trabajo de barrido mecánico consiste en el barrido mediante la utilización de máquinas especiales de las calzadas, aceras y espacios peatonales existentes en la vía pública, recogiendo y eliminando todos los residuos, desperdicios, polvo, etc, que aparezcan.
Erabilera publikoko plazetan eta espazioetan, soto, garaje eta antzekoen gainean daudenetan, haien egiturak "erabilera gainkarga" mugatzen badu, kontuan hartu beharko da erabiliko diren makinen pisua.	En plazas y espacios de uso público situados sobre sótanos, garajes y similares, cuya estructura limite la "sobrecarga de uso", deberá tenerse en cuenta el peso de la maquinaria a utilizar.

Kaleak garbitzeko makinak erratz-makina xurgagailuak izango dira, zakarra eramatekoak edo modu mistoan zakarra jasotzen dutenak, hautsa eta aire-filtroak ez sortzeko humektazio sistema automatikoko aspirazioa, eta maniobratzeko gaitasun haundikoak.	Las maquinas serán máquinas barredoras - recogedoras de aspiración, arrastre o mixtas provistas de los correspondientes sistemas automáticos de humectación para evitar la formación de polvo y de filtros de aire expulsado, y serán de una gran maniobrabilidad.
Arreta berezia jarriko da makineria isila izan dadin, eta euren ezaugarriek ingurumenarekiko inpaktua gutxitu dezaten.	Se pondrá especial cuidado en que la maquinaría sea silenciosa, y a que sus características minimicen los impactos medioambientales.
3.3.- ESPALOI ETA GALTZADEN ERRATZ-GARBIKETA MISTOA.	**3.3.- BARRIDO MIXTO DE ACERAS Y CALZADAS.**
Espaloiak eta bideak garbitzeko zeregin hau honela egingo da: espaloitik bidera haizea isurtzen duen makina bat erabiliko da, eta zikinkeria hori peoiaren eta haize-makinaren ondoan kokatutako erratz-makina garbitzaile batek jasoko du une horretan bertan.	Esta operación consiste en la realización del barrido de aceras y calzadas mediante la utilización de maquinaria que combine el soplado de aire desde la acera a la calzada de tal manera que la suciedad que se saque sea retirada en el mismo momento por una barredora que acompañe al peón y la sopladora.
3.4.- ESPALOIAK ETA GALTZADAK HIDROGARBIGAILUAZ GARBITZEA.	**3.4.- PISTOLEO DE ACERAS Y CALZADAS MEDIANTE HIDROLIMPIADORA.**
Lan hau espaloiak, plazak, pasealekuak, galtzadak, e.a… behar bezala garbitzean datza, behar adinako presioz ura botaz eta ondo garbitzeko baliabide egokiak erabiliz.	Esta operación consiste en lavar debidamente las aceras, plazas, paseos, calzadas, etc., mediante el lanzamiento de agua con la suficiente presión y medios adecuados para su correcta limpieza.
Operazio horren bidez hondakinak espaloi-ertzetara eramango dira, eta hortik jaso egingo dira erratzez edo makinaz.	Los residuos serán desplazados mediante esta operación hacia las proximidades de los bordillos donde serán recogidos en las operaciones de barrido.
Arreta berezia jarri beharko da garbiketa hidrogarbigailuaz egiten denean inguruko lokaletan urik sar ez dadin; halakorik gertatuko balitz, esleipendunaren erantzukizuna izango da, ez beste inorena, sor litezkeen kalteen aurrean erantzutea. Horrekin lotuta, udaleko zerbitzu teknikoek garbiketa mota hori saihestea komeni den puntuen zerrenda emango diote esleipendunari.	Deberá observarse especial cuidado para que al realizarse el pistoleo mediante la hidrolimpiadora no se introduzca agua en los locales próximos, siendo, en su caso, responsabilidad exclusiva de la adjudicataria responder de los daños que esta operación pueda causar. A este respecto, los servicios técnicos municipales facilitarán la relación de aquellos puntos en los que por las circunstancias de estos haya que evitar esta operación.
Makinak urez betetzeko zereginak Udalak horretarako izendatutako puntuetan egingo dira.	Las operaciones de carga de agua de la maquinaria se efectuarán desde los puntos designados a tal efecto por el Ayuntamiento.

3.5.- GARBIKETA LARUNBAT, IGANDE ETA JAIEGUNETAN.	**3.5.- LIMPIEZA EN SABADOS, DOMINGOS Y FESTIVOS.**
Hainbat inguruen hirigintza baldintzak, hala nola, herrigune izaera, oinezkoen pasagunea, merkataritza jarduera etab. kontuan hartuta, garbiketa maila altuak beharrezkoak dituzten inguruetan garbitzeko funtzio berezietarako aplikatuko da.	El objeto de estas operaciones se aplica a funciones propias de limpieza en zonas que, por sus condiciones urbanísticas, núcleo céntrico, tránsito peatonal, actividad comercial, etc…, requieran elevados niveles de limpieza.
Garbiketa lan horiek honako hauek hartuko dituzte barne: bideak, espaloiak, pasealekuak, plazak eta, oro har, oinezkoen guneak garbitzea, paperontziak hustea, etab. erratzaz eta hidrogarbigailuaz garbitzekoak direnak; lehentasuna izango dute bertan garatzen den jardueraren ondorioz edo jende ugari ibiltzen delako gehiago zikintzen diren inguruak. Inguru horietan enpresak egokien deritzon erraztatze eta hidrogarbigailu bidezko zerbitzua aplikatuko da, eta beharrezkoa bada ur garbiketa ere egingo da eskuz edo mekanikoki, ingurua desinfektatuz, eta haize-makina erabili gabe.	Estos trabajos consisten en la limpieza de calzadas, aceras, paseos, plazas y zonas peatonales en general, vaciado de papeleras, etc. propios de operaciones de barrido y pistoleo mediante hidrolimpiadora, con atención prioritaria a las zonas que presentan suciedades debido a su actividad o afluencia peatonal. En dichas zonas se aplicará el servicio de barrido y pistoleo mediante hidrolimpiadora más oportuno, de forma manual o mecánica, y con desinfección de la zona, y sin utilización de sopladora.
Zerbitzu hau maiztasunen koadroan eta dagozkien planoetan zehaztutako inguruetan aplikatuko da, Udaleko zerbitzu teknikoek aldian-aldian gune horietan aldaketak egin ditzaketela alde batera utziz.	Las zonas a las que se aplicará este servicio serán las señaladas en el cuadro de frecuencias y en los planos correspondientes, independientemente que por los servicios técnicos municipales se puedan modificar puntualmente las mismas.
3.6.- ESPALOIAK ETA OINEZKOEN GUNEAK SAKON GARBITZEA.	**3.6.- LIMPIEZA INTENSIVA DE ACERAS Y ZONAS PEATONALES.**
Zeregin hau bide publikoak intentsiboki garbitzean (desugerketa) datza; ez du premiazko izaerarik izango, eta bide publikoaren itxura kaltetzen duten zikinkeria edo edozein motatako orbanak garbituko dira. Lan horiek aldian-aldian eta txandaka egingo dira, horretarako diseinatutako makinak erabiliz.	Consistirá en la limpieza intensiva (decapado) de las vías públicas, sin carácter de urgencia, de suciedad y manchas de todo tipo que suponen una mala imagen y aspecto general de la vía pública. Los trabajos se realizarán de forma periódica y rotativa, utilizando maquinaría diseñada al efecto.
Inguru hauetan egingo dira lan horiek: oinezkoen zirkulazio handiagoa dagoen inguruetan, plazetan, tabernen inguruetan, hondakinen edukiontziak dauden inguruetan, kale-zurruta egiten den inguruetan, lirdinga hazten den inguruetan, material porotsuko zoladura duten inguruetan, etab., eta azken batean garbiketa sakon hori Urretxuko udalerri osoan egingo da, urte guztian zehar (2 Eranskina).	Serán objeto de este tipo de intervención las zonas con mayor tránsito peatonal, plazas, zonas alrededor de establecimientos bareros, entorno de las islas de contenedores de residuos, zonas de botellón, zonas propensas al crecimiento de verdín, zonas de pavimento con material poroso, etc, y en definitiva esta limpieza intensiva se realizará en todo el municipio de Urretxu a lo largo del año (Anexo 2).

Lizitatzaileek zerbitzua emateko erabiliko dituzten ekipoak sartuko dituzte beren eskaintzetan, zerbitzua emateko makineriaren ezaugarriak eta lan horiek egiteko antolaketa metodoa.	Las licitadoras incluirán en sus ofertas los equipos con los que prestarán este servicio, características de la maquinaria que prestará dicho servicio, y el método de organización para realizar dichos trabajos.
3.7.- PARKE ETA LORATEGIEN GARBIKETA.	**3.7.- LIMPIEZA DE PARQUES Y ZONAS AJARDINADAS.**
Lorategietan, atseden tokietan eta parkeetan jendeak oro har erabiltzen dituen pasabideak eta espaloiak garbitzea izango da zerbitzu honen helburua; era berean, lorategi edo berdegune horietan dagoen zaborra ere jaso egin beharko da.	Este servicio consiste en barrer y lavar el conjunto de los paseos y aceras utilizadas por el público en general, existentes en los jardines, zonas de recreo y parques, y retirar la basura que haya en los jardines y zonas verdes.
3.8.- KAINOZULO, ISURBIDE, ESTOLDA-ZULO ETA GAINERAKOAK GARBITZEA.	**3.8.- LIMPIEZA DE SUMIDEROS, REJILLAS, IMBORNALES Y DEMÁS.**
Garbiketa lan hau eskuz edo mekanikoki egin daiteke; estolda-zuloetan eta isurbideetan pilatuta dauden zakarrak ateratzea izango da, horien funtzionamendua une oro egokiena izan dadin.	Este tipo de limpieza, que podrá ser manual o mecánica, consistirá en la extracción de los residuos depositados en los sumideros y rejillas con el fin de que su funcionamiento sea en todo momento el más adecuado.
Garbiketa hau hilero egingo da, eta baita beharrak hala eskatzen duenean ere (3 Eranskina), hurrengo puntuen egoera astero berrikusiko delarik: - Aparizio auzoan oinezkoen pasabide azpiko hodia. - Ipeñarrieta (7-9 zenbaki aurreko sareta, Pagoeta goiko eskolaurreko sareta eta beheko errepideko sareta). - Pagoetako parkea, garaje gaineko saretak. - Tramex saretak Ipeñarrieta 6 eta 10. - Mendiaratz plazako saretak (luzea eta sifonikoa). - Kalerrota plazatxoko saretak. - Gernikako Arbolako saretak (plaza eta Labeagako terrazak). - Zubimusu plaza (kutxetaren zulotxoak eta espaloi-ertz ondoko kanaltxoa). - Matxinporta-Elizalde gurutzeko sareta. - Elizalde-Larreako bideko gurutzeko sareta. - Areizaga plazako luzetarako kanalaren sareta.	Esta limpieza se realizará mensualmente y siempre que las necesidades así lo exijan (Anexo 3), revisándose la situación de los siguientes puntos semanalmente: - Tubo bajo paso de peatones en Aparicio auzoa. - Ipeñarrieta (rejilla delante del nº7-9, rejilla parvulario Pagoeta arriba y rejilla junto carretera abajo). - Parque de Pagoeta rejillas sobre garajes. - Rejillas tramex en Ipeñarrieta, 6 y 10. - Rejillas (larga y sifónica) plaza Mendiaratz. - Rejillas plazuela Kalerrota. - Rejillas Gernikako Arbola (plaza y terrazas Labeaga). - Plaza Zubimusu (orificios arqueta y canalillo junto bordillo). - Rejilla cruce Matxinporta-Elizalde - Rejilla cruce Elizalde-camino Larrea. - Rejillas en canal longitudinal plaza Areizaga.

Hori guztia, hostoa erortzen den garaian izan ezik, orduan garbiketaren maiztasuna handitu egingo baita, hala behar izanez gero.	Ello, a excepción de la época de caída de la hoja, en la que se elevará la frecuencia de esta limpieza, si resultare preciso.
Eguraldi txarra iragartzen denean, arazoak sortzen dituzten isurbideak garbituko dira aurrez, eta esleipendunak bere gain hartuko ditu zeregin hori ez betetzeagatik sor daitezkeen kalteak.	Ante avisos de meteorología adversa se realizará una limpieza previa de los sumideros conflictivos, siendo responsabilidad de la adjudicataria los daños que pudieran generarse como consecuencia del incumplimiento de la citada tarea.
Isurbideak eta saretak garbitzean sortutako hondakinak atera bezain laster jasoko dira.	Los residuos procedentes de la limpieza de sumideros y rejillas serán retirados inmediatamente después de ser extraídos.
Zeregin horren berri emango zaie udaleko zerbitzu teknikoei, dagokion hileroko txostenaren bitartez, garbitutako inguruak zehaztuz; horrez gain, gehien buxatzen diren zatien, hondakin gehien metatzen diren inguruen, eraikuntza-akatsen eta abarren berri ere emango zaie.	De esta labor se dará cuenta a los servicios técnicos municipales, mediante el correspondiente informe mensual, con indicación de las zonas intervenidas, así como de los tramos que presenten una mayor frecuencia de obstrucción, acumulación de residuos, defectos constructivos, etc.
3.9.- HONDAKIN-EDUKIONTZIEN GUNEAK ETA INGURUAK GARBITZEA.	**3.9.- LIMPIEZA DE ZONAS DE CONTENEDORES DE RESIDUOS Y SUS ALREDEDORES.**
Zeregin honen baitan txertatzen dira hondakinak jasotzeko dauden eremu publikoak erratzez eta urez garbitzea nahiz bertan bildutako zaborra jasotzea, eta gune bakoitzean dagoen bideari dagokion maiztasunarekin egin beharko da.	Este trabajo consiste en el barrido y retirada de la basura existente en los espacios públicos destinados a la recogida de residuos, que deberá realizarse con la periodicidad de las vías a las que pertenece cada zona.
3.10.- PAPERONTZIAK HUSTEA.	**3.10.- VACIADO DE PAPELERAS.**
Udalerrian ezarrita dauden eta gerora ezarriko diren paperontzi guztietan utzitako hondakinak kentzean datza. Era berean, lan horien barnean sartzen da udal-eraikinen ondoan dauden edo gerora ezar daitezkeen hautsontziak hustea ere. Horretarako, paperontzia irekiko da horretarako egokitutako mekanismoarekin, eta debekatuta dago eskua sartzea, han utzitako produktuak ateratzeko. Ezin izango dira paperontziak eta hautsontziak bidera hustu, gero kalea garbitzeko makinaren bidez zaborra jasotzeko.	Este trabajo consiste en la retirada de todos los residuos contenidos y dejados dentro de las cestas de las papeleras existentes y futuras instaladas en el término municipal. Incluye, asimismo, el vaciado de los ceniceros instalados, o que a futuro se instalen junto a los edificios municipales. Para ello será necesario abrir la papelera con el mecanismo al efecto habilitado, estando prohibida la introducción de la mano para sacar los productos allí depositados. No se admitirá el vaciado de las papeleras y ceniceros en la calzada para posteriormente recoger la basura por máquinas barredoras.
Udalerrian dauden paperontziak aldatzen ari da udala, eta horien ordez gaikako bilketa egiteko	El Ayuntamiento está procediendo a sustituir las papeleras existentes en el municipio por papeleras

aukera ematen duten paperontziak ezartzen ari da (4 frakzio: organikoa, errefusa, ontziak, papera). Paperontzi horietako hondakinak gaika jasoko dira, hau da, frakzio bakoitza gaika bereizita jasoko da. Erabiltzaileek frakzioak ongi bereizten ez badituzte eta horiek paperontzian nahasita badaude, errefusari dagokion frakzioan utziko dira.	que permiten la recogida selectiva (4 fracciones: orgánica, rechazo, envases, papel). La recogida de este tipo de papeleras deberá ser realizada también de forma selectiva, recogiéndose cada fracción diferenciadamente. En caso de que los usuarios no separen bien las fracciones y éstas se encuentren mezcladas dentro de la papelera, serán depositadas en la fracción rechazo.
Udalerriko gainerako paperontzietatik jasotako hondakinak errefusari dagokion frakzioan utziko dira, paperontzi horiek gaikako bilketako paperontziez ordeztu arte.	Los residuos que se recojan del resto de las papeleras del municipio, hasta que las mismas sean sustituidas por las de recogida selectiva, se depositarán en la fracción rechazo.
Era berean, udalerrian zehar hainbat gunetan maskoten edo konpainia-animalien gorozkiak jasotzeko ezarrita dauden paperontzietako hondakinak jaso beharko dira, eta errefusaren frakzioan edo dagokienean utziko dira.	Del mismo modo, deberán recogerse los residuos depositados en las papeleras destinadas a la recogida de excrementos de animales de compañía instaladas en distintas zonas del municipio, debiendo depositarse en la fracción rechazo o en la que pueda corresponder.
Paperontziak behar adinako maiztasunez hustuko dira, inoiz beteta egon ez daitezen, eta erabiltzeko leku librea izan dezaten.	La frecuencia de vaciado de las papeleras deberá ser la suficiente, de tal forma que no permanezcan llenas en ningún momento y siempre que exista capacidad libre para su utilización.
Paperontzien hornikuntzaz udala arduratzen da gaur egun, eta poltsen hornidura adjudikaziodunaren zeregina izango da.	El suministro de papeleras actualmente lo realiza el Ayuntamiento, y el suministro de las bolsas será responsabilidad de la adjudicataria.
Alde horretatik, hondakinak gaika bereiz daitezkeen zabor ontzietan, hainbat koloretako poltsak erabiliko dira hondakin bakoitzerako (papera, urdina; ontziak, horia; beira, berdea; gainerakoak, beltza). Poltsek I motako ekoetiketaren bateko baldintzak bete behar dituzte, produktuaren formulazioko konposatu kimikoei dagokienez (Aingeru urdina edo baliokidea izan daiteke). Udalak frakzio bakoitzerako edukiontziak izango ditu, salbu-eta erratz-makinaren bidez bildutako hondakinentzat, horiek Mugitegi industrialdeko A bidean horretarako beren-beregi prestatutako gunean utziko dira.	En este sentido, se utilizarán bolsas de diferentes colores para cada tipo de residuo (papel-azul, envases-amarillo, orgánico-compostable, resto-negra) en aquellas papeleras mediante las que se pueda realizar la segregación de residuos. Las bolsas cumplirán los criterios de alguna ecoetiqueta tipo I como el ángel azul o equivalente, en cuanto a la presencia de compuestos químicos en la formulación del producto. El Ayuntamiento dispondrá de contenedores para cada fracción, excepto para los residuos recogidos mediante la barredora, que se depositarán en la zona habilitada al efecto en el vial A del polígono industrial Mugitegi.

Kontratista behartuta egongo da udalerriko paperontzietan hautematen dituen akatsen berri ematera, bai eta frakzioak behar bezala bereizten ez direla jakinaraztera ere, hala dagokionean, eta horien berri emango du gorabeheren agirietan. Agiri horiek udalak adjudikaziodunari emango dizkion ereduen arabera aurkeztuko dira; hilean behin, kontratuaren jarraipen-bileran.	La contratista vendrá obligada a comunicar las deficiencias que se observen en las papeleras existentes en el municipio, así como el incumplimiento de la correcta separación de fracciones, indicando dicho aspecto en los partes correspondientes. Se hará entrega de estos partes, de acuerdo con los modelos que facilitará el Ayuntamiento a la adjudicataria, con periodicidad mensual en la reunión de seguimiento del contrato.
3.11.- OLIO, KOIPE ETA HORRELAKO ORBANAK GARBITZEA.	**3.11.- LIMPIEZA DE MANCHAS DE ACEITE, GRASA, ETC…**
Udal Zerbitzu Teknikoek hala agintzen dutenean, bide publikoan gertatutako edozein istripuren edo gorabeheraren ondorio izan daitezkeen olio, koipe eta antzeko orbanak garbitu beharko dira.	Cuando lo ordenen los Servicios Técnicos Municipales, se procederá a la limpieza de las manchas de aceite, grasa, etc., que puedan ser debidas a cualquier tipo de accidente o anomalía de la vía pública.
Lan hauek noizbehinka motordun ibilgailuak ibiltzen diren oinezkoen guneak, gurpildunentzako guneak, ibilgailuen aparkalekuak eta, nagusiki, taxien eta autobusen geralekuak eta, beharrezkoa balitz, beste puntu batzuk barne hartuko dituzte.	Estos trabajos abarcarán a todas las zonas peatonales de uso esporádico por vehículos a motor, zonas de rodadura, aparcamientos de vehículos, paradas de autobús y otros puntos que fuera necesario.
Lan horiek egiteko, merkatuan eskuragarri dauden gailu edo bitarteko eraginkorrenez eta malguenez hornituko da zerbitzua.	Para la realización de dichos trabajos se dotará al servicio de los dispositivos o medios más eficaces y flexibles disponibles en el mercado.
Koipe, olio, erregai eta antzekoak biltzeko, produktu geldoak, ez-kimikoak, erabiliko dira. Bide publikoan arriskurik gabe erabil daitezkeela bermatzen duten produktuak erabiliko dira, eta ondoren, presiozko ura erabiliko da, erabat kendu arte.	Se utilizarán productos inertes, no químicos para la recogida de las citadas grasas, aceites, combustibles y similares. Se utilizarán productos que garanticen la no peligrosidad de su empleo en vía pública, procediéndose a una limpieza y posterior aclarado con agua a presión, hasta su total eliminación.
Udaleko zerbitzu teknikoei emango zaie lan horien berri, zein gunetan lan egin den eta maiztasun handiena zein gunek eskatzen duten adieraziz. Gorabeheren agiri horiek udalak adjudikaziodunari emango dizkion ereduen arabera aurkeztuko dira; hilean behin, kontratuaren jarraipen-bileran.	De esta labor se dará cuenta a los servicios técnicos municipales, señalando las zonas intervenidas, así como las que presenten una mayor frecuencia. Se hará entrega de estos partes, de acuerdo con los modelos que facilitará el Ayuntamiento a la adjudicataria, con periodicidad mensual en la reunión de seguimiento del contrato.

3.12.- ZUHAITZULO EDO TXORKO IREKIAK ETA ITXIAK GARBITZEA.	**3.12.- LIMPIEZA DE ALCORQUES ABIERTOS Y CERRADOS.**
Plegu honen eremu barruan dauden txorko guztiak garbituko dira, eta horretarako erraztatzeko hainbat ekipo erabiliko dira.	Se procederá a la limpieza de la totalidad de los alcorques existentes en el ámbito de este Pliego mediante la acción de los diferentes equipos de barrido.
Erraztatzeko ekipo horiei dagokie txorkoen ahoetan bildutako hondakin guztiak garbitzea, dagoeneko txorko-drainatzaileetan ezarrita daudenetan. Udala txorko-drainatzaileak instalatzen ari da poliki.	Corresponde a estos equipos de barrido la retirada de todos los desperdicios existentes en las bocas de los alcorques que no hayan sido sustituidos por los alcorques drenantes que el Ayuntamiento está instalando de forma paulatina en el municipio.
3.13.- ESKAILERAK, KORRIDOREAK, ARKUPEAK, E.A., GARBITZEA.	**3.13.- LIMPIEZA DE ESCALERAS, PASILLOS, SOPORTALES, ETC,…**
Erabilera publikoa duten eskailera publiko, korridore, barruko plazatxo eta arkupe guztiak garbitzeko eta desinfektatzeko ekintza egokiak egingo dira, horiek kokatuta dauden bideetako garbiketari dagokion maiztasun berdinarekin.	Se procederá a la limpieza de todas las escaleras públicas, pasillos, plazoletas interiores y soportales de uso público mediante operaciones adecuadas de limpieza y desinfección, y con una frecuencia igual a la limpieza de las vías a las que pertenecen.
3.14.- ANIMALIEN GOROTZAK ETA ANTZEKO HONDAKINAK GARBITZEA ETA JASOTZEA.	**3.14.- LIMPIEZA Y RETIRADA DE EXCREMENTOS DE ANIMALES Y OTROS RESIDUOS ASIMILADOS.**
Herri guztian zehar animalien gorozkiak eta antzeko hondakinak (botaka egindakoak, etab, …) garbitu eta jaso beharko dira, guztiz kentzeko egin behar diren lanak eginez. Garbiketa lan horiek kalea bera garbitzen den maiztasun berarekin egingo dira, udal zerbitzu teknikoek, bide publikoan gorotzak edo antzeko hondakinak daudela jakitean, berehala erretiratzea agintzen ez badute behintzat.	Se procederá a la limpieza y retirada de excrementos de animales y otros residuos asimilados (vómitos, etc.) en todo el término municipal, mediante las operaciones adecuadas para su total eliminación. La frecuencia será igual a la de la limpieza de las vías a las que pertenecen, salvo que los servicios técnicos municipales ordenen su retirada inmediata al tener conocimiento de la existencia de excrementos u otros residuos asimilados en la vía pública.
3.15.- ASTEROKO AZOKA GARBITZEA ETA INSTALATZEA.	**3.15.- LIMPIEZA E INSTALACIÓN DEL MERCADO SEMANAL.**
Udalerrian ostegunetan egin ohi den azokaren gunea erraztatzea eta, behar izanez gero, hidrogarbigailuaz garbitzea da zerbitzu honen xedea; oro har, azoka-eguna osteguna den arren, hainbat arrazoirengatik, noizean behin asteko beste egun batzuetan ere egiten	Es objeto de este servicio el barrido y el pistoleo mediante hidrolimpiadora, en caso de resultar preciso, del mercado ambulante que se celebra en el municipio, en general, los jueves, si bien, por diversas circunstancias, puntualmente puede

da.	trasladarse a otro día de la semana.
Baserriko produktuak saltzeko salguneetako astoak eta oholak jarri eta kenduko dira.	Incluye la colocación y retirada de caballetes y tableros en las zonas destinadas a los puestos de venta de productos del caserío.
Horrez gain, hainbat motatako hondakinak botatzeko edukiontziak jarri eta kenduko dira. Sasieta Mankomunitateak zehaztutako egun eta orduen arabera kenduko dira edukiontziak.	También incluye la colocación y retirada de los contenedores para depósito de los distintos tipos de residuos. La retirada de los contenedores se ajustará a los horarios y días de recogida establecidos por la Mancomunidad Sasieta.
Edukiontziak nahiz oholak eta astoak azoka egiten den plazan Udalak duen lokalean gordetzen dira.	Tanto los contenedores como los tableros y caballetes se guardan en el local del que dispone este Ayuntamiento en la plaza donde se celebra el mercado.
Goizeko 7:00etarako jarrita egon behar dute, eta 14:00etatik aurrera kendu ahal izango dira, zerbitzua egun horretan lehenago hasi beharko delarik.	La instalación deberá estar concluida para las 7:00 horas y se podrá retirar a partir de las 14:00 horas, por lo que el servicio dicho día deberá comenzar antes.
Azoka amaitu eta berehala egingo da garbiketa.	La limpieza se efectuará inmediatamente después de finalizar el mercado.
3.16.- HERRIKO HILERRIA GARBITZEA.	**3.16.- LIMPIEZA DEL CEMENTERIO MUNICIPAL.**
Hilerriko kale, bide eta berdegune guztiei eragingo die garbiketak, baita horko sarbideei ere.	La limpieza afectará a todas las calles, caminos y zonas verdes del cementerio, así como a sus accesos.
Lan horiek egiteko maiztasuna honako hau izango da: • Garbiketa orokorra: 7 egunetik behin. Lirdinga ez ateratzeko produktu kimiko egokiak erabili ahal izango dira. • Santu Guztien eguna baino lehen hilerri barrua, kanpoaldea eta inguru guztien aparteko garbiketa, urarekin presioz hidrogarbigailuaren bidezko garbiketa barne.	La periodicidad de estos trabajos será: • Limpieza genérica: una vez cada 7 días. Se evitará la formación de verdín, para lo cual se podrán utilizar productos químicos adecuados. • Limpieza extraordinaria de interior, exterior y alrededores, previa al día de Todos los Santos, incluyendo el pistoleo con agua a presión mediante hidrolimpiadora.

3.17.- SANTA BARBARAKO ERMITA INGURUKO AISIARAKO EREMUA GARBITZEA.	**3.17.- LIMPIEZA ZONA DE ESPARCIMIENTO DE LA ERMITA DE SANTA BARBARA.**
Santa Barbarako ermita inguruko aisialdiko eremu publikoa garbitzea, hau da, horrelako inguruetan pilatu ohi diren hondakinak (paperak, janari hondarrak, ontziak, etab.) garbitzea eta paper-ontziak hustea. Garbiketa lan hauek astean bi aldiz egin beharko dira gutxienez (astelehenean eta ostiralean), eta uda garaian (maiatza - iraila) astean hiru aldiz garbitu beharko dira, astelehenetan, asteazkenetan eta ostiraletan.	La limpieza de la zona de esparcimiento público de la ermita de Santa Bárbara se refiere a la retirada de los desperdicios que se originan normalmente en este tipo de zonas (papeles, restos de comidas, latas, etc.) y al vaciado de las papeleras. Se debe llevar a cabo con una periodicidad mínima de 2 días semanales, lunes y viernes, y en la época estival (mayo–septiembre) tres veces por semana, los lunes, miércoles y viernes.
Arreta berezia eskainiko zaio ekainaren 24an ospatzen den San Joan erromeriari. Aldez aurretik garbiketa sakon bat egingo da, eta beste bat hurrengo egunean, hau da, ekainaren 25ean.	Se prestará especial atención a la romería de San Juan, que se celebra el 24 de junio. Se realizará una limpieza previa exhaustiva, y otra el día siguiente a la romería, esto es, el 25 de junio.
3.18.- NOIZBEHINKAKO GARBIKETAK (FERIAK, KONTZENTRAZIOAK, JAIAK, KULTUR ETA KIROL EKITALDIAK, ETAB,...).	**3.18.- LIMPIEZAS ESPORÁDICAS (FERIAS, CONCENTRACIONES, FIESTAS, EVENTOS CULTURALES, DEPORTIVOS, ETC,...).**
Herritarren jarduera arruntari dagokiona baino zikinkeria maila handiagoa duten guneen garbiketa hartzen du zerbitzu honek, honako hauen ondorioz: - Herriko, auzoetako jaiak, e.a. - Kaleko manifestazioak edo ekitaldiak. - Hauteskunde kanpainak. - Feriak, herri elkarretaratzeak, kirol, kultur ekitaldiak. - Herri kirolak. - Beste ekitaldi batzuk.	Contempla este servicio la limpieza de aquellas zonas que presentan índices elevados de suciedad por encima del que corresponde por la lógica actividad ciudadana con motivo de: - Fiestas locales, de barrios, etc. - Manifestaciones o actos en la vía pública. - Campañas electorales. - Ferias, concentraciones populares, deportivas, culturales. - Deportes Rurales. - Otros acontecimientos.
Bereziki, eta esklusiboa izan gabe, ondorengo jai zerrenda: URTARRILA: Errege eguna. OTSAILA-MARTXOA: Inauterietako jaiak; Martxoko Baserritarren Feria. APIRILA-MAIATZA: Lore azoka eta aniztasun jaia. EKAINA: Ekain kulturala eta San Joan jaiak.	En particular, y sin que sea exclusiva, la siguiente relación de fiestas: ENERO: Día de Reyes. FEBRERO – MARZO: Fiestas de carnaval; Feria de Marzo de Baserritarras. ABRIL – MAYO: Feria floral y fiesta de la diversidad. JUNIO: Junio Cultural y Fiestas de San Juan.

UZTAILA: Geltokietako jaiak. IRAILA: Jai Nagusiak. AZAROA: Mineralogia Astea. ABENDUA: Abenduko baserritarren feria, Santa Lutzi feria, Gabon eta Gabon Zahar.	JULIO: Fiestas de las Estaciones. SEPTIEMBRE: Fiestas patronales. NOVIEMBRE: Semana de Mineralogía. DICIEMBRE**:** Feria de diciembre de baserritarras, Feria de Santa Lucía, Nochebuena y Nochevieja.
Zerbitzu hauek eskaintzaren barnean txertatuta egongo dira, eta ez dira berezita fakturatuko.	Estos servicios estarán incluidos en la oferta y no serán causa de facturación aparte.
Bide publikoko inguru horiek garbituko dira, eta, herriko jaietan eguraldi txarra egingo balu, udal-pilotalekua ere garbituko da, ekitaldi bakoitzaren ospakizuna amaitu bezain laster, edo hala dagokionean, beharren arabera eta jai-ekitaldiaren ordutegia kontuan hartuta. Aurrez eta nahikoa denboraz zehaztuta dauden ekitaldietan, udaleko zerbitzu teknikoek adieraziko dute nola egin behar den garbiketa.	Se procederá a realizar la limpieza de estas zonas de la vía pública, y en caso de mal tiempo durante las fiestas patronales, del frontón municipal, inmediatamente después de terminada la celebración de cada acto, o cuando proceda, según las necesidades, y de acuerdo con los horarios del evento festivo. En aquellos actos que se conozcan previamente y con un tiempo suficiente de antelación, la limpieza será detallada por los Servicios Técnicos Municipales.
Ekitaldi horietako batzuek eskatzen duten lan-bolumena kontuan hartuta, jai nagusietan bereziki eta Santa Lutzi eguneko ferian, baliabide eta material egokiak erabili beharko dira zerbitzua emateko, horiek guztiak eskaintzan zehaztuko direlarik. Era berean, ohiko garbiketa lanetan aritzen diren langileek eman beharko dute zerbitzu hori, egin beharreko lanak eta ibilbideak ezagutzen dituztelako, eta hori guztia kontratak izendatutako errefortzuak baztertu gabe, beti ere aipatutako ekitaldi horietarako langile errefortzua eta makineria kuantifikatuz.	Teniendo en cuenta el volumen de trabajo que requieren algunos de estos actos, principalmente las fiestas patronales y la feria de Sta. Lucía, el servicio deberá prestarse con los medios y los materiales adecuados que vendrán concretados en la oferta. Del mismo modo el servicio deberá prestarse por el personal que lleva a cabo las labores de limpieza habitualmente, por su conocimiento de las tareas y de los recorridos a realizar, y ello sin perjuicio de los refuerzos que asigne la contrata, y en todo caso cuantificando el refuerzo de personal y maquinaria para dichos eventos.
3.19.- ESKOLETAKO JOLASTOKIAK ETA EMAKUMEEN ETXEKO ATARIA GARBITZEA.	**3.19.- LIMPIEZA PATIOS ESCOLARES Y ANTEPUERTAS CASA DE LAS MUJERES.**
Lan hori gainazala garbitzean eta han pilatutako hondar guztiak jasotzean datza.	El trabajo consistirá en la limpieza de la superficie y retirada de todos los restos allí acumulados.
Herriko ikastetxeetako jolastokiak eta Emakumeen Etxeko atari inguruak garbituko dira.	Se procederá a la limpieza de los patios y alrededores de los colegios del municipio y de las antepuertas de la casa de las mujeres.

Honako jolastoki eta atari hauek garbitu beharko dira:	Los patios y antepuertas a limpiar son los siguientes:
- Gainzuri (eskailerak, futbol eta saskibaloi kantxa, Jose Mari Lasa plazatik dauden sarbideak). - Lizeoa (kantxa eta harmailak). - Ikastola (Parking gisa erabiltzen den jolastokia, Pagoeta, Euskaltel-eko atzealdea). - Emakumeen Etxeko ataria.	- Gainzuri (escaleras, cancha de futbol y baloncesto, accesos desde la Plaza Jose Mari Lasa). - Liceo (cancha y gradas). - Ikastola (Patio utilizado como parking, Pagoeta, trasera Euskaltel). - Antepuerta casa de las mujeres.
Garbiketaren maiztasunak honakoak izango dira:	Las frecuencias de limpieza serán:
- Astean behin sakon garbituko da, hau da, erraztatu eta paperontziak hustuko dira. Garbiketa lan horrek amaituta egon behar du astelehenean goizeko 9:00etarako. Udalerria zikinen egoten den eguna astelehena denez (paperontziak beteta egoten dira, litroak edateko jendetza bildu duten guneak zikin, gorakoen hondarrekin, etab.).	- Una limpieza especial profunda, una vez a la semana, que consistirá en un barrido y vaciado de papeleras. Dicha limpieza deberá estar efectuada antes de las 9 de la mañana del lunes. Siendo el lunes el día en el que el municipio suele presentar el peor estado de limpieza de la semana, encontrándose las papeleras llenas, zonas en las que se han celebrado botellones, restos de vómitos, etc,…,
- Gainera, mantentze-garbiketa egingo da asteko gainerako egunetan: asteartetan, asteazkenetan, ostegunetan eta ostiraletan.	- Además se realizará una limpieza de mantenimiento el resto de los días de la semana, martes, miércoles, jueves y viernes.
3.20.- HAUR PARKEAK GARBITZEA.	**3.20.- LIMPIEZA PARQUES INFANTILES.**
Herriguneko haur-parkeak egunero garbitzean datza. Zoladura garbitzea, paperontziak hustea, parkeko elementuak berrikustea eta, hala badagokie, horiek garbitzea lirateke bete beharreko zereginak.	Se trata de la limpieza diaria de los parques infantiles de la zona urbana, la limpieza consistirá en la limpieza del pavimento, vaciado de papeleras y revisión de los elementos del parque y en su caso limpieza.
3.21.- TXAKURREN AISIARAKO EREMUAK GARBITZEA ETA MANTENTZEA.	**3.21.- LIMPIEZA Y MANTENIMIENTO DE LAS ZONAS DE ESPARCIMIENTO DE PERROS.**
Udalerrian dauden eta gerora ezar daitezkeen txakurren aisiarako eremuak garbituko dira, eta horien mantentze-lanak egingo dira. Paperontziak hustea eta poltsa faltarik sor ez dadin euskarrietan poltsak jartzea dira zeregin nagusiak.	Se procederá a realizar la limpieza y mantenimiento de las zonas de esparcimiento de perros existentes y las que puedan instalarse en un futuro en el municipio, que consistirá en el vaciado de las papeleras y la reposición de las bolsas de los

Adjudikazioduna arduratuko da poltsen horniduraz.	dispensadores, de forma que éstos siempre estén provistos de bolsas. El suministro de las bolsas será responsabilidad de la adjudicataria.
Dena den, eta lizitatzaileek eskainiko duten zerbitzuari buruzko proposamen zehatza egiteko duten betebeharraz adierazitakoa kaltetu gabe, txakurren aisiarako eremuaren garbitze- eta mantentze-lanak, paperontzia husteko lanak barne, gutxienez astean behin egingo dira.	En cualquier caso, y sin perjuicio de lo indicado con respecto a la obligatoriedad de las licitadoras de hacer una propuesta concreta de servicio a prestar, el servicio de limpieza y mantenimiento de las zonas de esparcimiento de perros, incluido el vaciado de las papeleras de la zona, tendrá una frecuencia mínima de una vez por semana.
Gaur egun, aisiarako horrelako 5 eremu daude (Pagoeta parkea, zahar-etxearen ondoko berdegunea, Basagastiko berdegunea, Lizeoaren ondoko berdegunea eta San Martin/Bidegorriko berdegunea).	En la actualidad las áreas de esparcimiento existentes son 5 (Parque Pagoeta, zona verde junto al hogar del jubilado, zona verde de Basagasti, zona verde junto al Liceo, y zona verde de San Martin/Bidegorri).
3.22.- KARKABAK GARBITZEA.	**3.22.- LIMPIEZA DE CÁRCAVAS.**
Hirigune historikoan dauden udalaren jabetzako edo jabetza publikoko karkabak garbitzean datza.	Se trata de realizar la limpieza de las cárcavas de propiedad municipal o públicas del Casco histórico.
Dena den, eta lizitatzaileek eskainiko duten zerbitzuari buruzko proposamen zehatza egiteko duten betebeharraz adierazitakoa kaltetu gabe, lubakien garbiketa-zerbitzuaren barnean, gutxienez astean behingo maiztasunez kenduko dira paperak eta eranskailuak, eta urtean behin garbiketa sakon bat egingo da.	En cualquier caso, y sin perjuicio de lo indicado con respecto a la obligatoriedad de las licitadoras de hacer una propuesta concreta de servicio a prestar, el servicio de limpieza de cárcavas tendrá una frecuencia de retirada de papeles y pegatinas mínima semanal y una limpieza anual exhaustiva.
3.23.- BIZIKLETAK GARBITZEKO GUNEA GARBITZEA.	**3.23.- LIMPIEZA DEL ÁREA DE LIMPIEZA DE BICICLETAS.**
Matxinporta Industrialdean dagoen bizikletak garbitzeko eremua garbitzean eta hango hondakinak kudeatzean datza.	Se trata de realizar la limpieza y gestión de residuos del área de limpieza de bicicletas situada en la zona Industrial de Matxinporta.
Eremu hori astean behin garbituko da, eta kutxatilak eta estolda-zuloak garbi eduki behar dira, ongi funtziona dezaten.	La limpieza de esta área se realizará semanalmente, debiendo mantenerse tanto las arquetas como los sumideros libres de suciedad para el correcto funcionamiento de esta.

3.24.- PAPERONTZIAK GARBITZEA.	**3.24.- LIMPIEZA DE PAPELERAS.**
Zerbitzu honen barnean sartzen da paperontziak kanpotik eta barrutik garbitzea, bai eta eranskailuak, pintadak edo antzekoak kentzea ere.	En este servicio se incluye la limpieza exterior e interior de las papeleras, e incluso la retirada de pegatinas, pintadas o similares.
Dena den, eta lizitatzaileek eskainiko duten zerbitzuari buruzko proposamen zehatza egiteko duten betebeharraz adierazitakoa kaltetu gabe, paperontziak garbitzeko zerbitzuaren barnean, paperontzi bakoitza urtean 2 aldiz garbituko da.	En cualquier caso, y sin perjuicio de lo indicado con respecto a la obligatoriedad de las licitadoras de hacer una propuesta concreta de servicio a prestar, el servicio de limpieza de papeleras se deberá realizar de tal forma que cada papelera sea limpiada a fondo 2 veces al año.
Lan horiek egiteko, merkatuan eskuragarri dauden gailu edo bitarteko eraginkorrenez eta malguenez hornituko da zerbitzua.	Para la realización de dichos trabajos se dotará de los dispositivos o medios más eficaces y flexibles disponibles en el mercado.
3.25.- AUTOBUS MARKESINAK GARBITZEA.	**3.25.- LIMPIEZA MARQUESINAS AUTOBUS.**
Astero garbituko dira, berorietan itsatsita egon daitezkeen kartelak, eranskailuak, iragarkiak eta antzekoak kenduz. Era berean, sakon-sakon garbitu behar dira urtean behin, xede horretarako egokiena den makineriarekin.	Se deberá realizar semanalmente, eliminando de las mismas los carteles, pegatinas, anuncios y asimilados que puedan ser fijados en las mismas. Del mismo modo se deberá llevar a cabo una limpieza anual, exhaustiva, con la maquinaria que resulte más adecuada a dichos efectos.
3.26.- HOSTOEN ERORKETA GARAIKO GARBIKETA.	**3.26.- LIMPIEZA EN ÉPOCA DE CAÍDA DE HOJA.**
Udazkenean eta beharrak hala eskatzen duenean bilduko dira hostoak, beti ere herrian pilatzen den hosto-bolumenaren araberako giza-baliabideak eta teknikoak erabiliz. Horretarako, zehatz-mehatz azaldu beharko dute lizitatzaileek zerbitzu edo lan horri eskainiko dizkioten baliabideak, lanorduak eta maiztasuna. Hostoak jasotzeko lanaz gain, indartu egin beharko da hustubide eta kainozuloen garbiketa lana, kontuan izan behar baita hondakin horiek izaten direla gehienetan zulo haiek ixten dituztenak. Baldintzek horretarako bide ematen dutenean, hostoen garbiketa eta bilketa birziklapena egin ahal izateko moduan egingo da, beti ere hondakin begetal gisa botatzeko Udalak adierazten duen zabortegi	La recogida de la hoja se realizará en la época otoñal y cuando el servicio lo requiera, empleando los medios técnicos y humanos apropiados al volumen de hojas que se acumulan en el municipio. Para ello, las licitadoras indicarán claramente los medios, frecuencias y horarios que se dedicarán a este servicio. Además de los trabajos apropiados de la recogida de hoja, se intensificará la limpieza de sumideros e imbornales, habida cuenta de la importancia que en la obstrucción de estos tienen estos residuos. Cuando las condiciones lo permitan, esta limpieza y recogida de hojas deberá realizarse de forma que sea posible su reciclado, para depositarlas como

baimenduan (gaur egun Sasietan).	restos vegetales en el vertedero autorizado que indique el Ayuntamiento (actualmente en Sasieta).
3.27.- ARAZO JAKINAK DITUZTEN EREMUEN GARBIKETA BEREZIA.	**3.27.- LIMPIEZA ESPECIAL DE ZONAS CON UNA PROBLEMÁTICA CONCRETA.**
Garbitzeko arazo bereziren bat duen udalerriko zenbait eremutako zoladura sakon garbitzean datza. Bereziki, asteburuetako gernu eta gorakoekin zerikusia duten arazoak dituzten eremuak dira.	Consiste en una limpieza en profundidad del pavimento de diferentes zonas concretas del municipio, con una especial problemática de limpieza, especialmente asociada a orines y vómitos generados los fines de semana.
Garbiketa-zerbitzu honetarako, litekeena da baliabide tekniko bereziak behar izatea, kontuan hartuta zer lekutan egin behar den (ataripeak, igogailuen zuloen inguruak, dendetarako sarrerak, etab.) eta horrek zer muga dakartzan, horrelakoak garbitzeko eta ur-pilaketarik ez izateko edo eremu pribatuetan iragazketarik ez izateko erabili behar diren baliabideen arabera, betiere.	Este servicio de limpieza, por los lugares en los que se debe llevar a cabo, soportales, zonas cercanas a fosos de ascensores, acceso a comercios…, y con las limitaciones que ello conlleva en cuanto a los medios a utilizar para la limpieza, para evitar problemas de acumulaciones indeseadas de agua, filtraciones a zonas privadas… puede requerir de medios técnicos especiales.
Hau da garbitu beharreko eremuen zerrenda (zehatz-zehatza ez bada ere): Erretirodunen etxearen inguruko eremua. Gainzuriko eta Jose Mari Lasako eskailerak. Kalerrotako plaza txikia (Hokaba). Kalerrotako eta Gernikako Arbola plazako eskailerak. Labeaga 5eko eskailerak eta pasabideak. Karkabak. Kaletxiki. Madayako barruko plaza (4 eskinak).	El listado de las zonas a limpiar, sin carácter exhaustivo, es el siguiente: Zona hogar del jubilado. Escaleras Gainzuri - José Mari Lasa. Plazoleta Kalerrota (Hokaba). Escaleras Kalerrota – Plaza Gernikako Arbola. Escaleras y pasillos Labeaga 5. Cárcavas. Kaletxiki. Plaza interior Madaya (4 esquinas).
3.28.- ELURTE ETA IZOZTE PLANA	**3.28.- PLAN DE NEVADAS Y HELADAS**
Elurteak edo izozte handiak gertatzen direnean, eman behar diren zerbitzuak eta lanerako eremua, bai eta gainerako zehaztapenak ere, udalak	En caso de producirse nevadas o fuertes heladas, los servicios a realizar y el ámbito, así como el resto de determinaciones, serán los que establezca

Elurteetarako Planean (4 eranskina) ezarritakoak izango dira. Kasu horretan, kontrataren langile guztiak Udalaren esanetara egongo dira. Alde horretatik, kontratak bere langileen baldintzak egokitu beharko ditu aparteko egoera hauen aurrean Udalak ezarriko dizkion aginduetara.	el Ayuntamiento en su Plan de Nevadas (Anexo 4). En este caso todo el personal de la contrata estará a disposición del Ayuntamiento. En este sentido, la contrata deberá adecuar las condiciones de su personal a las indicaciones que fije el Ayuntamiento ante estas situaciones no ordinarias.
Udalak kontratistaren esku jarriko dituen erreserbako ekortzeko makina eta 4x4 pick-up ibilgailuak elurte-kit a dute (gatz barreiatzailea, elurra kentzeko labana, etab). (5. Eranskina "kontratu berrian erabiliko diren eta, amortizatu ondoren udalarenak izango diren egungo zerbitzu-ibilgailuen zerrenda").	La máquina barredora de reserva y el vehículo pick-up 4x4 que el Ayuntamiento pondrá a disposición de la contratista cuentan con kit de nevadas (un salinero o esparcidor de sal, cuchilla quita-nieves, etc,...). (Anexo 5 "Relación de vehículos del servicio actual que pasarán a ser de utilización en el nuevo contrato y que, tras su amortización, pertenecen al Ayuntamiento".
3.29.- BEREHALAKO GARBIKETA ZERBITZUA.	**3.29.- SERVICIO DE LIMPIEZA DE ACCIÓN INMEDIATA.**
Baliabideek malguak izan behar dute, soluzio azkar eta eraginkorra eskatzen duten lanei, aurrez zehaztutakoei nahiz bat-batekoei, berehala erantzun ahal izateko. Lanaldiaren barruan zerbitzua berrantolatu beharra gerta daiteke, egoerek eskatuta, eta lanalditik kanpoko zerbitzua fakturatu egingo da, eskaintzarekin batera aurkeztutako prezio unitarioen arabera.	Se deberá disponer de flexibilidad en los medios existentes de forma que se puedan atender de manera inmediata aquellos trabajos contemplados o no para los que se requiera una solución rápida y eficaz. Dentro de la jornada laboral el servicio podrá ser objeto de reorganización cuando las circunstancias lo requieran, y fuera de la jornada laboral el servicio será facturado, conforme a los precios unitarios presentados junto con la oferta.
3.30.- LARRIALDIETAKO PLANA.	**3.30.- PLAN DE EMERGENCIA.**
Larrialdiko kasuetan, edota beste edozein egoera berezitan, adjudikaziodunak udalaren esku jarriko ditu udalak egokitzat jotzen dituen baliabide guztiak, eskaintzaren barruan sartuta daudenen artetik, betiere.	En casos de emergencia, o cualquier otra situación excepcional, la adjudicataria pondrá en estos casos a disposición municipal la totalidad de los medios que el Ayuntamiento considere oportunos, dentro de los que figuran en la oferta.
Zerbitzu hori fakturatu egingo da, eskaintzarekin batera aurkeztutako prezio unitarioen arabera.	El servicio será facturado, conforme a los precios unitarios presentados junto con la oferta.

3.31.- HILDAKO ANIMALIAK JASOTZEA.	**3.31.- RECOGIDA DE ANIMALES MUERTOS.**
Bide publikotik hildako animaliak jasoko dira, beharra ikustean edota jakinarazten zaienean.	La retirada de animales muertos en la vía pública se realizará después de haberse observado o comunicado la necesidad de su realización.
Adjudikazioduna arduratuko da gorpua jasotzeaz eta kudeatzeaz, indarrean dagoen legediaren arabera, Udalak zehaztuko dion zabortegi baimenduan bota beharko dituelarik gorpuzkin horiek (gaur egun Sasietaren Deskargako Garbigunean).	La retirada y gestión se realizará por la adjudicataria conforme a la legislación vigente, debiendo depositar dichos restos en el vertedero autorizado que indique el Ayuntamiento (actualmente Garbigune de Deskarga de Sasieta).
3.32.- GARBIKETAN HARTUTAKO HONDAKINAK JASO ETA ERAMATEA.	**3.32.- RECOGIDA Y TRASLADO DE LOS RESIDUOS RETIRADOS EN LA LIMPIEZA.**
Eskuz erraztatuta sortutako bildutako hondakinak bereizi egingo dira, eta dagokion gaikako edukiontzietan utziko dira (5 frakzio: organikoa, ontziak, papera, beira edo errefusa). Edukiontzi horiek Udalak emango dizkio zerbitzuaren esleipendunari.	Los residuos generados en el barrido manual serán segregados y depositados en los contenedores de la fracción que corresponda (5 fracciones: orgánico, envases, papel, vidrio o rechazo), contenedores que serán facilitados por el Ayuntamiento a la adjudicataria del servicio.
Sailkatu ezin izan diren eta gainerako frakzioaren poltsa-orgetan garraiatu diren eskuz erraztatuta bildutako hondakinak errefusa gisa kudeatuko dira.	Los residuos procedentes del barrido manual que no hayan podido segregarse y se hayan transportado en el portabolsas de la fracción resto serán gestionados como rechazo.
Udalerriko kale-garbiketako lanen ondorioz sortutako hondakinak (erraztatze-mekanikoa) Mugitegi industrialdeko A bidean horientzat egokitutako gunean utziko dira. Esleipendunak kudeatuko ditu aplikatu beharreko araudiaren arabera, eta Udalak beregain hartuko ditu kudeaketa horri dagozkion kostuak.	Los residuos generados como consecuencia de las tareas de la limpieza viaria del municipio (barrido mecánico) serán depositados en la zona habilitada a tal efecto en el vial A del polígono Mugitegi, debiendo ser gestionados por la adjudicataria conforme a la normativa de aplicación, siendo a cargo del Ayuntamiento los costos generados como consecuencia de su gestión.

3.33.- PINTADAK, KARTELAK, PEGATINAK, PANKARTAK ETA BANDEROLAK.	**3.33.- PINTADAS, CARTELES, PEGATINAS, PANCARTAS Y BANDEROLAS.**
Adjudikazioduna arduratuko da bide publikotik (fatxadak, argiak, seinaleak, markesinak, kartel-panelak, zorrotenak…) etengabe pintadak, kartelak, eranskailuak, pankartak, banderatxoak eta antzekoak kentzeaz. Lan hori adjudikaziodunak egingo du, udalak une bakoitzean emandako jarraibideak kontuan hartuta.	La adjudicataria será responsable de eliminar de la vía pública (fachadas, farolas, señales, marquesinas, paneles de cartelería, bajantes...) de forma continuada las pintadas, carteles, pegatinas, pancartas, banderolas y similares. Este trabajo lo realizará la adjudicataria bajo las directrices que en cada momento indique el Ayuntamiento.
Eskainiko duten zerbitzuaren proposamen zehatza egin behar dute lizitatzaileek, eta ahalik eta balio-aniztasun handieneko baliabideak izan behar dituzte; giza baliabide eta baliabide material egokiak eskaini behar dituzte gainera.	Las licitadoras deben hacer una propuesta concreta de servicio a prestar, cuyos medios serán lo más polivalentes posibles, y destinando los medios humanos y materiales adecuados.
Adierazitakoa kaltetu gabe, udalak egun adierazpen librerako panelak ditu, eta, horietan, kartelak, iragarkiak eta abar itsats litezke. Panel horiek astero garbituko dira.	Sin perjuicio de lo señalado, el Ayuntamiento en la actualidad dispone de paneles de libre expresión donde pueden fijarse carteles, anuncios, etc,… y cuya frecuencia de limpieza será semanal.
3.34.- UDAL IGERILEKUAREN INGURUA GARBITZEA.	**3.34.- LIMPIEZA ZONA PISCINAS MUNICIPALES.**
Udal igerilekuko sarreran, aparkalekuan eta kanpoko berdegunean pilatu litezkeen hondakinen kudeaketa eta garbiketa egitea izango litzateke.	Se trata de realizar la limpieza y gestión de los residuos que puedan acumularse en la entrada, aparcamiento y zona verde exterior de las piscinas municipales.
Gune honetako garbiketa astelehenetik ostiralera egingo da udal igerilekua zabalik dagoen denboraldian (ekainetik irailera bitartean). Denboraldi horretatik kanpo, urtean zehar igerilekuko aparkalekua garbitasun egoera onean egon beharko da, betiere plegu honetako 1.2 eranskinean exijitzen den garbiketa maiztasuna errespetatuz.	La limpieza de esta zona se realizará de lunes a viernes durante la temporada en la que las piscinas municipales permanezcan abiertas (junio a septiembre). Durante el resto del año el aparcamiento de las piscinas se mantendrá en debidas condiciones de limpieza, respetando la frecuencia de limpieza exigida en el anexo 1.2 que forma parte del presente pliego.

3.35.- KONTZIENTZIAZIO KANPAINAK.	**3.35.- CAMPAÑAS CONCIENCIACION.**
Ezinbestekoa izango da urtean behin herritarrak bide-garbiketarekin lotutako gaiei buruz kontzientziatzeko kanpainak egitea. Kanpaina horiek herritar guztiei nahiz talde espezifikoei (ikasleak, erretirodunak, ostalaritzakoak, merkataritzakoak...) zuzendutakoak izan daitezke.	Sera obligatoria una campaña anual de concienciación ciudadana sobre temas relacionados con la limpieza viaria. Las campañas podrán ser dirigidas a la generalidad de la población, o a grupos específicos (escolares, jubilados, hostelería, comercios…).
Lizitatzaile bakoitzak proposatzen duen kontzientziazio-kanpainaren azalpen-memoria aurkeztu behar du, irismenari, hedapenari, epeari, planari eta gauzatzeko egutegiari buruzko xehetasunak emanez, eta gainerako gorabeherak azalduz, berori kontuan hartu, aztertu eta balioetsi ahal izateko.	Cada licitadora deberá presentar una memoria explicativa de cada una de las campañas de concienciación que proponga con el grado necesario de detalle para la compresión de su alcance y extensión, indicación de plazo, plan o calendario de ejecución, y demás circunstancias convenientes para su consideración, estudio y valoración.
4.- ZERBITZUA EMATEKO ORDUAK.	**4.- HORARIOS PRESTACIÓN DE LOS SERVICIOS.**
Zerbitzuak emateko orduak garbiketa lan ezberdinetan sortzen diren zarata mailen arabera egokitu beharko dira, baita ere herriaren berezitasunen, eta trafikoaren eta oinezkoen intentsitatearen arabera.	Los horarios de prestación de los servicios deberán adaptarse en función de los niveles de ruido que se generen en las distintas operaciones de limpieza, de las características urbanas, y de la intensidad de tráfico rodado y peatonal.
Lizitatzaileek, baldintza horiek oinarri hartuta, zerbitzu ezberdinetarako ordu-proposamen bat egingo dute. Jaiegunetan arreta berezia izango da lana hasterakoan, zaratak direla medio, bizilagunei eragin dakizkiekeen eragozpenengatik.	Las licitadoras, en base a estas premisas, harán una propuesta de horario para los distintos servicios. En el caso de los festivos se tendrá especial cuidado en el inicio de los trabajos y las molestias que por tema de ruidos se pudieran ocasionar a la vecindad.
Kutsadura akustikoa eta ingurumenaren kutsadura ahal beste saihesteko baliabide mekaniko egokienak aztertuko dira. Alde horretatik, erabiliko diren makinak, sortuko diren zarata mailak, erregai edo energia mota, kontsumoa, CO2-ren igorpenak, etab. zehaztuko dira.	Se estudiarán los medios mecánicos más adecuados para evitar al máximo la contaminación acústica y ambiental. En este sentido, se detallará la maquinaria a emplear, los niveles de ruido que genera, tipo de combustible o energía, consumo, emisiones de CO2, etc.
Bereziki, Gainzuri ikastetxeko sarbideak, Ikastolako eta Emakumeen etxeko sarbideak, Garaialde Lizeoko kirol guneko sarbideak garbituta egon beharko dute gutxienez eskolaumeek eskolan sartzeko duten ordua	En particular, la limpieza correspondiente a los accesos al Colegio Gainzuri, accesos Ikastola, Casa de la Mujer y área deportiva Liceo, deberá realizarse de manera que esté concluida, como

baino ordu erdi lehenago.	mínimo, con media hora de antelación sobre el horario de entrada de los escolares al centro.
Zerbitzuak ezin izango dira inoiz goizeko 6:30a baino lehen hasi, eta 7:00ak arte atzeratu beharko dira herriguneko erraztatze-mekanikoko zerbitzuak, hidrogarbigailuaren bidez pistolatzea, besteak beste. Halaber, plaza itxietan 8:00ak arte atzeratu beharko da garbiketa-lanen hasiera.	Los servicios en ningún caso podrán comenzar antes de las 6:30 de la mañana, debiendo retrasar su inicio a las 7:00 horas los servicios de barrido mecánico como el de pistoleo mediante hidrolimpiadora en el casco urbano, debiendo igualmente retrasarse el inicio de las labores de limpieza a las 8:00 en las plazas cerradas.
5.- LANGILEGOA.	**5.- PERSONAL.**
5.1.- OROKORTASUNAK.	**5.1.- GENERALIDADES.**
Zerbitzuaren kudeaketa eraginkortasunez ustiatzeko beharrezko langileak izango ditu uneoro esleipendunak, baldintza-orri honetan jasotako zehaztasunekin bat etorrita.	La adjudicataria dispondrá en todo momento del personal necesario para explotar eficazmente la gestión del servicio de acuerdo con las especificaciones de este Pliego.
Alabaina, ezinbestean gutxieneko langileak eduki beharko ditu (zuzeneko langileak 9 izango dira: 6 lanegunetarako eta beste 3 asteburu eta jaiegunetarako), zeinak eskaintzan erabat islatu eta justifikatu beharko diren, eta bajak, baimenak edo bestelako arrazoiak direnetan, ordezkatu egin beharko dituzte, eta Urretxuko Udalari berehala jakinarazi beharko diote ezein aldaketa.	No obstante, vendrá obligada a mantener un personal mínimo (el personal directo estará formado por 9 personas trabajadoras, 6 personas para los días laborales y otras 3 personas para fines de semana y festivos) que deberá quedar plenamente reflejado y justificado en la oferta, estando obligada a sustituir ausencias, ya sean por bajas, permisos u otros motivos, e informar de inmediato al Ayuntamiento de Urretxu de cualquier variación en las mismas.
Lanegunetarako langileak: Subrogatutako 6 langileekin pertsonalaren oporrak/bajak planifikatuko dira astelehenetik ostiralera bitartean, txandakako sistemaren bidez. Gutxienez beharko den langileria 5 lagunekoa izango da, salbu-eta abuztuan; abuztuan, gutxienez 4 lagunekin egin ahal izango da. Egun, lanegunetarako zerbitzuan dagoen langile kopurua handiegia da. Hori dela-eta, lanegunetan lan egiten duten egungo subrogatutako langileak jubilatu ahala, Udalak zerbitzu horretan ariko diren langileen kopurua doituko du. Doikuntzaren ondoren, Udalaren asmoa da etorkizunean lanegunetako zerbitzu horretarako bideratuta 5 langile izatea. Lanegunetarako langile-kopuru hori askiesten da,	**Personas trabajadoras para los días laborales:** Con las 6 personas trabajadoras subrogadas para los días laborales se planificarán las vacaciones/bajas del personal de lunes a viernes con un sistema de correturnos. El personal mínimo necesario será de 5 personas, menos en agosto que se podrá realizar con un mínimo de 4 personas. El servicio para los días laborales, en la actualidad, se encuentra sobredimensionado en cuanto a la plantilla que presta el mismo. Así pues, tan pronto se vayan produciendo las distintas jubilaciones del personal subrogado para los días laborales, el Ayuntamiento adecuara el número de personas trabajadoras que prestan este servicio. Siendo intención del Ayuntamiento, una vez realizado

asteburuetarako eta jaiegunetarako zerbitzua indartu egingo baita langile bat gehiago kontratatuta.	dicho ajuste, que en un futuro el número de personas trabajadoras destinadas a dicho servicio de días laborales esté formado por 5 personas. Considerándose suficiente dicho número de trabajadores/as para los días laborales, dado que el servicio para fines de semana y festivos será reforzado con la contratación de una persona trabajadora más.
Asteburu eta jaiegunetako langileak: Zerbitzu hori langile bat gehiagorekin indartuko da; izan ere, Udalak ikusten baitu egun dauden bi langileekin ezin dela asteburu eta jaiegunetan sortzen den zikinkeria garbitzeko zerbitzu efizienterik eman. Halaber, Udalak egiaztatu duenez, asteburu eta jaiegunetarako langile kopurua handituta, eta laneguneterako subrogatutako langileek erretiroa hartu ahala, laneguneterako langileen kopurua egokitu beharko da, eta kopuru hori 5 pertsonara murriztuko da. Hala, asteburuetan eta jaiegunetan zerbitzua emango duten zuzeneko langile kopurua hiru (3) pertsonakoa izango da, eta hiru (3) horietatik bi (2) subrogatu egin beharko dira. Behar den gutxieneko langile kopurua 3 pertsonakoa izango da, abuztuan izan ezik; abuztuan, gutxieneko kopurua 2 izango da.	**Personas trabajadoras para fines de semana y festivos:** Este servicio será reforzado con una persona trabajadora más, al considerar el Ayuntamiento que con las actuales dos personas trabajadoras no puede prestarse un servicio acorde con la suciedad que se genera los fines de semana y festivos. Constatándose igualmente por parte del Ayuntamiento que, como consecuencia de la ampliación del personal para los fines de semana y festivos y tan pronto se vayan produciendo las distintas jubilaciones del personal subrogado para los días laborales, se deberá ajustar el número de personas trabajadoras destinadas al servicio de días laborales, que se reducirá a 5 personas. Por lo expuesto, el personal directo destinado a prestar el servicio los fines de semana y festivos constará de tres (3) personas, y de esas tres (3) personas trabajadoras dos (2) deberán ser subrogadas. El personal mínimo necesario será de 3 personas, menos en agosto que se podrá realizar con un mínimo de 2 personas.
Asteburu eta jaiegunetatako subrogatuko diren bi (2) langileek gaur egun ez dute peoi makinista kategoria eta zerbitzua emateko ezinbestekoa da kontratuari atxikitako ibilgailuak erabiltzea. Horrenbestez, esleipendunak bi langileen kategoria egokitu beharko du egoera horretara, eta horretarako, Udalak pertsonaleko partidan baliabide ekonomiko nahikoa jarri ditu, aipatutako kategoria aldaketari aurre egiteko.	Las dos (2) personas trabajadoras para fines de semana y festivos, que serán objeto de subrogación, en la actualidad no cuentan con la categoría de peón maquinista cuando para prestar el servicio se hace preciso la utilización de los vehículos adscritos al contrato. Por tanto, la adjudicataria deberá adecuar la categoría de ambas personas trabajadoras a dicha circunstancia, para lo que el Ayuntamiento ha dotado la partida de personal suficientemente para hacer frente a dicho cambio de categoría.
Taldea osatzeko eskatzen den hirugarren (3) langileak honako baldintza hauek bete beharko ditu: B	La tercera (3) persona trabajadora que se solicita para completar el equipo deberá cumplir los siguientes requisitos: Deberá acreditar,

gidabaimena duela egiaztatu beharko du nahitaez. Gainera, langile horrek ezin izango du 3 urte baino gehiagoko antzinatasuna izan enpresan. Lanposturako hautagaia udaleko zerbitzu teknikoei proposatu beharko zaie, kontratatu baino lehen, eta Udalaren oniritzia izan beharko du plantillan onartu aurretik. Lizitazio honen kontratua indarrean dagoen bitartean, baldintza horiek ezarriko zaizkie zerbitzuan sar daitezkeen langile berri guztiei.	obligatoriamente, estar en posesión de carnet de conducir B. Además, dicha persona trabajadora no podrá tener una antigüedad mayor a 3 años en la empresa. La persona candidata al puesto, con anterioridad a su contratación, deberá ser propuesta a los servicios técnicos municipales, debiendo contar con el visto bueno del Ayuntamiento previamente a su incorporación a la plantilla. Estas condiciones serán aplicables a toda nueva persona trabajadora que pueda llegar a incorporarse al servicio durante la vigencia del contrato de la presente licitación.
Eskaintzan argi adierazi beharko da zerbitzuari dagokion organigrama, non argi garbi zehaztu beharko diren plantilla, haren kualifikazioa eta lanpostuari dagozkion egin beharrekoekin eta ordutegiekin, baita lan bakoitzerako eskainiko den zerbitzu bakoitza hobeto definitzea ahalbidetzen duen beste edozein datu ere.	Se deberá reflejar claramente en la oferta el organigrama del servicio en el que se especifique claramente la plantilla, su cualificación y los puestos de trabajo desempeñados con los horarios y cualquier otra circunstancia que permita la mejor definición del servicio que se va a dedicar a cada uno de los diferentes trabajos.
Lehiaketa honen xede den zerbitzua bere gain hartzen duen momentuan, zerbitzuari atxikitako langile-zerrendan dituen langileak bere gain hartu beharko ditu esleipendunak, 7. eranskinean agertzen den zerrenda, alegia, hori guztia lan-eskubide eta gainontzeko eskubide guztiak errespetatuz, beti ere gaur egun beraien artean duten lan-harremanaren arabera.	La adjudicataria vendrá obligada a asumir el personal que, en el momento de hacerse cargo del servicio objeto del concurso, esté adscrito a la prestación de este, y cuya relación figura en el Anexo 7 de este documento, todo ello con total y absoluto respeto a los derechos laborales y de otra índole que, de acuerdo con la relación laboral que mantienen, detenten en la actualidad.
Kontratua indarrean dagoen bitartean, eta kontratua hasi deneko plantilan aldaketaren bat suertatuko balitz, erretiroa dela, heriotza, borondatezko baja, kalera bidaltzea, ezintasun iraunkorra, edo beste arrazoiren bat dela, edo zerbitzurako beharrek hala eskatuta aldaketarik izango balitz, lan-hartzailea behartuta dago lanpostuetan sor daitezkeen aldaketak betetzerakoan aldez aurretik Udalbatzaren Alkate-Lehendakariari edo horren ordezkoari haien berri ematera. Aldaketa horiek betetzerakoan herriko emakume langabetuei emango zaie lehentasuna.	Durante la vigencia del contrato, la adjudicataria, siempre que se vaya produciendo una variación en la plantilla con que se inicia el contrato, bien sea por jubilación, defunción, baja voluntaria, despido, invalidez permanente, necesidades del servicio, etc. estará obligada a informar de tal extremo al Sr. Alcalde-Presidente de la Corporación o a la persona en quien éste delegue, en orden a cubrir las variaciones de los puestos de trabajo que se puedan producir. Estas variaciones serán cubiertas preferentemente del paro femenino local.
Urte osoan zehar arituko den langileria plegu honetan exijitutako lan guztiak behar bezala egiteko behar bestekoa izango da.	El personal durante todo el año será el necesario para la correcta ejecución de todas las labores exigidas en este Pliego.

5.2.- NAHITAEZKO LANPOSTUAK ZERBITZUAK EGITEKO.	**5.2.- PUESTOS DE TRABAJO OBLIGATORIOS PARA LA REALIZACIÓN DE LOS SERVICIOS.**
Behar adinako gaitasuna duen pertsona bat egongo da kontratatutako zerbitzu multzo guztiaren enpresa-ordezkari eta kontratatutako zerbitzu guztien arduradun gisa; pertsona horrek izango du hartu-eman zuzena udaleko zerbitzu teknikoekin, eta behar bezala informatuta izango ditu ondorengo gai hauetan: zerbitzua ematerakoan aurkitzen dituen gorabehera guztiak; enpresa esleipendunak bete gabeko langileen edo baliabide ezaren ondorioz sor litezkeen hutsuneak, horren berri emango duelarik asteroko eta hileroko partean; baita ere zerbitzua hobeto arrazionalizatzeko eta eraginkortasun hobea izateko iradokizunak. Era berean, bide publikoetan, kaleko tresnerian, eta abarretan ikusten den edozein gorabeheraren berri emango du.	Como Delegado/a de la Empresa y responsable directo del conjunto de los servicios contratados, figurará una persona con la cualificación suficiente para desarrollar esta función, la cual se mantendrá en contacto directo con los servicios técnicos municipales, a los que informará debidamente sobre: cuantas anomalías encuentre en el desarrollo del servicio; las deficiencias que puedan generarse como consecuencia de la falta de recursos o del personal no cubierto por la empresa adjudicataria, debiendo informarse de ello tanto en el parte semanal como en el parte mensual; así como posibles sugerencias en orden a la mejor racionalización y eficacia del mismo. Asimismo, informará sobre cualquier eventualidad y deficiencia que se observe en las vías públicas, mobiliario urbano, etc.
5.3.- LANGILEEN SUBROGAZIOA	**5.3.- SUBROGACIÓN DEL PERSONAL**
Lan-kontratuen subrogazioa: kontratistak gaiari buruz legediak dioena beteko du.	Subrogación de contratos de trabajo: la contratista estará a lo que disponga la legislación laboral al respecto.
Egungo kontratistaren langile-zerrenda osatzen duten langileen baldintzak eta ezaugarriak ezagutzeko, pleguaren 7. eranskin gisa atxiki da langileei buruzko datuak jasotzen dituen taula.	Para el conocimiento de las condiciones y características del personal que integra la plantilla de la actual contratista, se adjunta como Anexo 7 a este pliego, un cuadro con los datos de la plantilla.
5.4.- LANGILEEN DEDIKAZIOA	**5.4.- DEDICACIÓN DEL PERSONAL**
Zerbitzuari atxikitako langile oro kontratuaren xederako soilik erabiliko da. Kontratuan jaso ez diren beste zerbitzu batzuek egiteko, udalaren agindua edo berariazko baimena beharko da.	Todo el personal adscrito al servicio será de uso exclusivo para el objeto del contrato. Para la realización de otros servicios ajenos al mismo, se deberá tener orden o autorización expresa del Ayuntamiento.

5.5.- BETEBEHARRAK LANGILEEI DAGOKIENEZ	**5.5.- OBLIGACIONES EN CUANTO AL PERSONAL**
Kontratista arduratuko da langileen baldintzak indarrean dagoen legediak ezarritakora egokitzeaz. Arlo horretan bete beharreko baldintzaren bat betetzen ez denean, kontratistarena izango da erantzukizun osoa.	La contratista se responsabilizará de ajustar las condiciones del personal a lo dispuesto en la Legislación vigente. Cualquier incumplimiento será de exclusiva responsabilidad de la contratista.
Kontratu honen xede diren zerbitzuak emateari atxikitako langileek ez dute inolako lan-harremanik izango udalarekin kontratua indarrean dagoen bitartean, ez eta hori amaitzean edota suntsiaraztean ere.	El personal adscrito a la prestación de los servicios objeto del presente contrato no tendrá relación laboral alguna con el Ayuntamiento durante la vigencia del contrato, ni al termino o resolución de este.
Ezin izango zaio inoiz erantzukizunik eskatu udalari, eta kontratistaren eta langileen arteko erreklamazioen gainean udalak ez du inolako erantzukizunik izango.	En ningún caso podrá exigirse responsabilidad alguna al Ayuntamiento, y éste quedará totalmente exento de responsabilidad, sobre las reclamaciones entre el contratista y su personal.
Lizitatzaileek bere eskaintzan langileei buruzko politika proposatuko dute lizitatzaileek, eta, bereziki, prestakuntzarekin, laneko segurtasun eta higienearekin eta osasun-zerbitzuekin lotutako alderdiak zehaztuko dituzte.	Las licitadoras deberán indicar en sus ofertas la política de personal a seguir y en particular todos los aspectos relacionados con la formación, seguridad e higiene en el trabajo y servicios médicos necesarios.
Lan-hartzaileak behar bezala aseguratuta izan beharko ditu langile guztiak, eta erantzukizun zibileko aseguruak egin beharko ditu, egin beharreko lanetan hirugarrenei eragin dakizkiekeen kalte-galerak estaltzeko.	La adjudicataria deberá tener debidamente asegurado a todo el personal a su cargo, debiendo suscribir seguros de responsabilidad civil que cubran posibles daños a terceros en la realización de los trabajos contemplados.
5.6.- URGENTZIETARAKO LANGILEAK.	**5.6.- PERSONAL PARA URGENCIAS.**
Kontratistak larrialdietako telefono bat edukiko du 24 orduan, urtearen 365 egunetan, udal-zerbitzuen abisuei, erreklamazioei eta jarraibideei erantzuteko. Komunikazio-erregistro batean idatziko dira, eta emandako aginduak, horiek nondik datozen eta zer egun eta ordutan izan diren jasoko da erregistro horretan.	La contratista dispondrá de un teléfono de urgencias 24 horas, 365 días año, para atender los avisos, reclamaciones e instrucciones que se reciban por parte de los Servicios Municipales. Estas comunicaciones serán anotadas en un registro que incluirá las órdenes transmitidas, el origen de estas, la fecha y la hora en la que se efectuaron.

5.7.- LANGILEAK ORDEZKATZEA.	**5.7.- SUSTITUCIONES DEL PERSONAL.**
Opor garaietarako eta gaixotasun-arrazoiengatik, emandako baimenengatik eta hobekuntza-ikastaroengatik langileak lanera faltako diren kasuetarako, enpresak ordezkapen-plan bat izan beharko du, horretarako gaur egungo plantilan duen langileria bakarrik erabiliz.	Para los periodos vacacionales, de ausencia por enfermedad, permisos, cursos de perfeccionamiento, etc. la empresa deberá disponer de un plan de sustituciones, contando únicamente para ello con el personal de que dispone la plantilla actual.
Adjudikaziodunak urtero "Oporraldietarako plan xehetua" proposatuko du, aurretik azaldutakoaren arabera, Urretxuko herrian zerbitzu horrek dituen beharrekin bat datorrena.	La adjudicataria anualmente propondrá un "Plan pormenorizado para vacaciones", de acuerdo a lo expuesto con anterioridad, acorde a las necesidades del servicio en una población de las características de Urretxu.
Langile batek baja hartzen duenean edota langilea lanetik falta denean, adjudikaziodunak 24 ordu igaro baino lehen eman behar du horren berri, eta, ordezkatu beharreko zerbitzu bat bada, bajako egunetik kontatzen hasita hiru egun natural baino lehen ordezkatu beharko da, langilea falta den egunetarako.	La adjudicataria deberá informar antes del transcurso de 24 horas cuando se produzca una baja o ausencia, y en caso de tratarse de un servicio a sustituir, la sustitución se deberá realizar antes de tres días naturales, desde el inicio de la baja, y mientras dure la ausencia.
Zerbitzuaren arduraduna aldatu edo ordezkatu behar den kasu zehatzean, aldaketa udalari proposatuko dio idatziz eta nahikoa denborarekin adjudikaziodunak, proposatzen duen pertsonaren curriculuma erantsiz. Hori ikusi ondoren, adjudikaziodunak bere eskaintzan proposatu zituen baldintzak betetzen dituen egiaztatuko du udalak, eta, hala badagokio, ordezkapena onartuko du.	En el caso concreto del cambio o sustitución del encargado del servicio, la adjudicataria propondrá al Ayuntamiento por escrito y con la suficiente antelación dicho cambio, adjuntando currículum de la persona propuesta. A la vista de este, el Ayuntamiento comprobará si cumple las condiciones propuestas en su oferta por la adjudicataria, y en, en su caso, dará el visto bueno a la sustitución.
Urtero, kontratistak aurreko urtean falta izanagatik ordezkatu ez zituen langileen ondorioz aurreztutako zenbatekoa emango/ordainduko dio udalari (udalak berak erabakitzen duenaren arabera). Horretarako, zerbitzuaren arduradunak entregatuko dituen hileroko gorabeheren agiriak aztertuko dira.	Anualmente la contratista compensará/abonará al Ayuntamiento (conforme a lo que decida el propio Ayuntamiento) aquella cantidad que se hubiera ahorrado el año anterior como consecuencia de aquellas ausencias de personal no sustituidas. Para ello se revisarán los partes mensuales que serán entregados por el encargado del servicio.

5.8.- UNIFORMETASUNA	**5.8.- UNIFORMIDAD.**
Plegu honetako zerbitzuei atxikitako langile guztiek uniformea jantzi behar dute, zerbitzuak ematerakoan ondo identifikatzeko, segurtasunagatik eta kontrolatu ahal izateko. Gainera, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legeak eskatutako segurtasun- eta babes-baliabideak eramango dituzte beti.	El personal adscrito a los servicios del presente Pliego deberá estar perfectamente uniformado, en orden a la identificación, seguridad y control de la prestación de los servicios, y que irá dotado, en todo caso, de los medios de seguridad y protección exigidos por la Ley de Prevención de Riesgos Laborables.
Uniformea desberdina izango da udan eta neguan, eta udalak onartu beharko du.	El tipo de uniforme será distinto en verano que en invierno y habrá de ser aprobado por el Ayuntamiento.
Langileentzako jantzien kantitatea eta kalitatea hitzarmen kolektiboek adostutakoaren arabera zehaztuko dira; dena den, ez dira inoiz urtean bi uniforme baino gutxiago izango (negukoa eta udakoa).	La cantidad y calidad de vestuario para el personal se regirá en todo momento según lo acordado por los convenios colectivos, no siendo en ningún caso inferior a dos uniformes anuales, uno de invierno y otro de verano.
Lizitatzaile bakoitzak jantzien zerrenda zehatza azaldu beharko du, eta era berean, langile bakoitzak erabiliko duen tresneria osagarria, bakoitzaren urteko kostua adieraziz.	Cada licitadora deberá presentar una relación detallada de las prendas de vestuario, así como del material auxiliar que va a emplear cada operario con expresión del costo anual de los mismos.
Adjudikazioduna izango da erantzule langileak garbi, txukun eta berdin jantzita ez badoaz, edota langileek hiritarrei adeitasunik gabe edo gaizki tratatzen badituzte; horrez gain, zerbitzuak ematerakoan gehiegizko zarata ateratzearen erantzule ere izango da.	La adjudicataria se responsabilizará de la falta de aseo, decoro, uniformidad en el vestuario o de la descortesía o mal trato que el personal observe con respecto a la ciudadanía, así como de la producción de ruidos excesivos durante la prestación de los servicios.
6.- MATERIALA ETA MAKINAK.	**6.- MATERIAL Y MAQUINARIA.**
6.1.- OROKORTASUNAK	**6.1.- GENERALIDADES**
Enpresa lizitatzaileek kontratuko zereginak eta zerbitzuak ahalik eta modu egokienean garatzeko beharrezkoak diren baliabideak eskainiko dituzte, kopuru egokietan eta ezaugarri egokiekin.	Las empresas licitadoras ofertarán los medios necesarios, en la cantidad y con las características adecuadas para desempeñar la totalidad de las funciones y servicios del contrato de forma óptima.
Zerbitzu ezberdinetan erabili beharreko material mugikorra zehaztuko dute lehiakideek, eta argi eta garbi adierazi zerbitzua zuzen-zuzen eskaintzeko beharrezko	Las licitadoras indicarán el diverso material móvil a utilizar en los diferentes servicios, expresando con claridad lo que se entiende por material necesario

materiala zein den, eta zein erretserbakoa, hau da, egoera normalean zerbitzuan egongo ez dena, baina egunero zerbitzuan dagoena matxuratuz gero horren ordez jarriko dena, edo kasu jakinetan hura indartzeko erabiliko dena.	para la correcta prestación de los servicios, y material de reserva, es decir, aquel que no estando ordinariamente en servicio y asignado explícitamente a éste, se incluirá con el fin de suplir a los de servicio por causa de avería o refuerzo ocasional.
Uneoro enpresa esleipendunak zerbitzuak eskaintzeko beharrezko materiala izan beharko du, eta matxuraren bat edo beste edozein irregulartasun gertatu bada, matxura gertatu den unetik gehienez ere 72 orduko epea izango du makineria berriro martxan jartzeko. Zerbitzua murriztea suposatzen duten matxurak gertatuz gero Udaleko Zerbitzu Teknikoak jakinaren gainean jarri beharko dira ahal bezain laster.	En todo momento la adjudicataria deberá disponer del material necesario para la correcta prestación de los servicios, siendo el plazo máximo de reposición de maquinaria por avería o cualquier otra causa, de 72 horas desde que se produzca la avería. Todas las averías que supongan una merma en el servicio serán puestas en conocimiento de los Servicios Técnicos Municipales a la mayor brevedad posible.
Zerbitzua emateko beharrezko makinak, material higikorra eta gainerako materiala horiek bete beharko dituzten funtzioen arabera hautatuko dira, eta honako hauek ere kontuan hartuko dira horiek aukeratzerakoan: kaleen zabalera, maldak eta material hori erabiliko den inguruen ezaugarriak. Sotoen, garajeen eta antzekoen gainean kokatutako plazetan eta erabilera publikoko espazioetan, inguru horiek onartzen duten gainkarga eta erabiliko diren makinen pisua hartu beharko dira kontuan.	La maquinaría, material móvil y resto del material necesario para la prestación del servicio se elegirán de acuerdo con las funciones que deban realizar, adaptándose a los condicionantes de anchura de calles, pendientes y características de las zonas donde se programe su uso. En plazas y espacios de uso público situados sobre sótanos, garajes y similares, se tendrá en cuenta la sobrecarga de uso admitida y el peso de la maquinaria a utilizar.
Erabiliko diren baliabide guztiek homologazio-ziurtagiriak izango dituzte.	Todos los medios aportados tendrán certificados de homologación.
Funtzionamendu egoera onean egon beharko dute une oro; sistemak eta mekanismoak erabilgarri izango dira eta ezingo dute hondatuta egon.	Deberán encontrarse en todo momento en buenas condiciones de funcionamiento, sin que ninguno de sus sistemas o mecanismos se encuentren fuera de uso o deteriorados.
Kontsumoari eta igorpenei dagokienez, ahalik eta eraginkorrenak izango dira.	Serán, en cuanto a consumo y emisiones, lo más eficientes posibles.
Adjudikazioduna arduratuko da entretenimenduen, mantentze-lanen, behaketen, nahitaezko berrazterketen, aseguruen eta horrelakoen gastuez, kontratua indarrean dagoen bitartean.	La adjudicataria será responsable de todos los gastos de entretenimiento, mantenimiento, conservación, revisiones obligatorias, seguros, y otros durante el periodo de vigencia del contrato.
Makina berriek zarataren inguruan indarrean dagoen legediak ezarritakoa errespetatu behar dute.	La maquinaria nueva deberá respetar lo establecido por la normativa vigente en materia de ruidos, contaminación y seguridad.

Kalean lanean dabiltzan ibilgailu guztiak oso ondo ikusi beharko dira, eta behar bezalako segurtasun neurriak izango dituzte gidariarekin bat eginda lan egiten duten langileentzako.	Todos los vehículos que trabajen en la vía pública serán perfectamente visibles y dispondrán de los sistemas de seguridad obligatorios para los operarios que trabajen en conexión con el conductor.
Kalean lan egiten duten ibilgailuek behar bezalako seinalizazio-tresnak eduki beharko dituzte, ondo ikus daitezen eta oinezkoek eta trafikoak arriskurik izan ez dezaten.	Aquéllos que realicen trabajos en la vía pública estarán dotados con los equipos de señalización precisa para su mejor detección, en orden a evitar todo tipo de riesgos para los peatones y el tráfico rodado.
Eskaintzen den material guztia xehetasun osoz deskribatu behar dute lizitatzaileek, eta horiei buruzko planoak, krokisak, eskemak, argazkiak eta material horiek ahalik eta ondoen ezagutzeko beharrezkoak iruditzen zaizkien gainerako datu guztiak aurkeztuko dituzte.	Todo el material ofertado deberá ser minuciosamente descrito por las licitadoras, con aportación de planos, croquis, esquemas, fotografías y cuantos datos crean necesarios aportar a fin de obtener el máximo conocimiento posible de los mismos.
Industria eta Energia Zuzendaritzak aldiro egiten duen ikuskapena pasatu behar duten ibilgailu automobil guztiek, arinek, pisu ertainekoek nahiz astunek, indarrean dagoen araudiaren arabera egin beharko dute.	Todos los vehículos automóviles, tanto ligeros como medios o pesados, que deban someterse a inspección periódica por la Dirección de Industria y Energía lo harán según establece la normativa en vigor.
6.2.- KONTRATUAN ERABILI BEHARREKO IBILGAILUAK ETA MAKINERIA.	**6.2.- VEHICULOS Y MAQUINARIA A UTILIZAR EN EL CONTRATO.**
Udalak aurreko kontratutik hainbat makina eta ibilgailu ditu jabetzan, eta, baliabideak ahalik eta ondoen baliatzeko, esleipendunak eskura izango ditu bideak eta kaleak garbitzeko zerbitzurako. Udalaren jabetzakoak diren eta esleipendunaren esku jarriko diren ibilgailuen eta makinen zerrenda 5. eranskinean dago jasota (Urretxuko Udalaren jabetzakoak diren eta kontratu berrian erabiltzekoak izango diren ibilgailuen zerrenda). Aurreko kontratutik datoz eta ondo erabiltzeko moduan daude, eta esleipendunak lizitazio honen xede den kontratuan baliatu beharko ditu.	El Ayuntamiento dispone de diversa maquinaria y vehículos en propiedad provenientes del anterior contrato que, en aras a un óptimo aprovechamiento de los recursos, pondrá a disposición de la adjudicataria del servicio de limpieza viaria. La relación de vehículos y maquinaria propiedad del Ayuntamiento que se pondrán a disposición de la adjudicataria se relacionan en el Anexo 5 (Relación de vehículos propiedad del Ayuntamiento de Urretxu que pasarán a ser de utilización en el nuevo contrato) que, provenientes del anterior contrato y que estando en condiciones para su buen uso, la adjudicataria deberá emplear en el contrato objeto de la presente licitación.
Udalak diruz hornitu du kontratua, plegu honen xede den kontratu aldian, ibilgailuek eta makinek euren lanetarako erabilgarri iraun dezaten. Hala, esleipendunaren dagozkio berauen egokitzapen eta	El Ayuntamiento ha dotado económicamente el contrato al objeto de que la adjudicataria acometa las labores necesarias para que la vida útil de los citados vehículos y maquinaria pueda abarcar el

mantentze kostuak eta ardurak. Zehazki, E4484BGJ kale-garbigailuari ezinbesteko egokitzapena egin beharko zaio, kontratuan jasota dagoen bezala, zerbitzua ematen jarrai dezan.	periodo del contrato objeto de este pliego, siendo por tanto a cuenta y cargo de la adjudicataria los gastos que se deriven de la adecuación y mantenimiento de esta. Concretamente la barredora E4484BGJ deberá ser sometida a la preceptiva adecuación para que la misma pueda seguir prestando el servicio como reserva en el contrato.
Udalaren jabetzako ibilgailuez eta makinez gain zeinak, arestian adierazi den bezala, esleipendun berriaren eskura jarriko diren, zerbitzuak badu errazte-mekanikoko kale-garbigailu bat, egungo esleipendunak aurreko kontratuaren indarraldian erosi behar izan zuena (6. Eranskina – "Egungo zerbitzuaren ibilgailua, kontratu berrian erabiliko dena, oraindik amortizatzeko dagoena"). Aipatutako kale-garbigailu hori, zeina amortizatu gabe dagoen, kontratu berrian erabiliko du esleipendun berriak, eta haren titulartasunekoa izango da aurrerantzean, amortizatzeke dagoen zenbatekoa bere gain hartuta, baita haren erabilerak eta mantentzeak eragindako gastuak ere.	Además de los vehículos y maquinaria propiedad del Ayuntamiento, que como se ha expuesto anteriormente se pondrán a disposición de la nueva adjudicataria, el servicio cuenta con una máquina barredora que debió ser adquirida por la actual adjudicataria en el periodo de vigencia del anterior contrato (Anexo 6 "Vehículo del servicio actual que pasará a ser de utilización en el nuevo contrato, pendiente de amortizar"). La citada máquina barredora, pendiente de amortizar, pasará a ser utilizada en el nuevo contrato por la nueva adjudicataria, pasando a ser de su titularidad, asumiendo la cantidad pendiente de amortización, así como los gastos derivados por su uso y mantenimiento.
Aurreko kontratutik datozen ibilgailu eta makineria, hala Urretxuko udalaren jabetzakoak direnak nola ordaintzeke dagoen kaleak garbitzeko makina, kontserbazio eta mantenimendu aldetik, egoera onean entregatuko ditu aurreko esleipendunak, eta era berean horien mantenimendu liburuak eskuratuko ditu. Udalak ikuskatzaile tekniko bat izendatuko du, aurreko kontratutik datozen ibilgailu eta makineria, kontserbazio eta mantenimendu aldetik, esleipendun berriari egoera onean entregatzen zaiola egiaztatuko duena. Lizitatzaileek aurreko kontratutik datozen ibilgailuen eta makineriaren egoera egiaztatu ahal izateko, hala Urretxuko udalaren jabetzakoak direnak nola ordaintzeke dagoen kaleak garbitzeko makinarena, enpresa lizitatzaileen bisitak antolatuko dira, egoera egiaztatu ahal izateko. Aipatutako bisita horiek egiteko interesa duten enpresek beraien eskaerak aurkeztu beharko dituzte idatziz, beti ere lizitazioaren iragarkia argitaratu ondoren, eta udal zerbitzuek	Los vehículos y maquinaria provenientes del anterior contrato, tanto los pertenecientes al Ayuntamiento de Urretxu como la barredora pendiente de amortizar, serán entregados en buen estado de conservación y mantenimiento por parte la anterior adjudicataria, debiendo entregarse por su parte los libros de mantenimiento de los mismos. El Ayuntamiento designará un interventor técnico que comprobará que los vehículos y la maquinaria proveniente del anterior contrato se entregan en perfecto estado de conservación y mantenimiento a la nueva adjudicataria. A fin de que las licitadoras puedan comprobar el estado de los vehículos y maquinaria procedente del anterior contrato, tanto las pertenecientes al Ayuntamiento de Urretxu como el de la barredora pendiente de amortizar, se programarán visitas de las empresas licitadoras para que puedan comprobar su estado. Las empresas interesadas en realizar las visitas señaladas deberán presentar sus solicitudes mediante escrito tras la publicación del

bisitak egiteko egutegi bat prestatuko dute.	correspondiente anuncio de licitación, elaborándose por los servicios municipales un calendario de visitas.
Aurreko kontratutik datozen pick-up ibilgailua eta kalea garbitzeko bi makinak ekipatzeko ardura esleipendunak hartuko du, neguko neumatikoekin, horiek instalatuz, baldintza meteorologikoek instalatuta edukitzea gomendatzen ez badute behintzat, azaroaren erditik apirilaren erdira bitartean.	La adjudicataria deberá hacerse cargo de equipar tanto al pick-up como a ambas barredoras, provenientes del contrato anterior, con neumáticos de invierno, debiendo instalar los mismos, salvo que las condiciones meteorológicas aconsejen mantenerlos instalados, entre mediados del mes de noviembre y mediados del mes de abril.
Era berean, egiaztatu da orain arte erabili izan den pick-up-a ez datorrela bat zerbitzuaren egungo beharrizanekin, eta haren lan berberak egin ditzakeen beste ibilgailu batek ordezkatu behar duela. Makinei eta ibilgailuei dagozkien egungo araudiak betetzen dituen ibilgailua izan beharko du. Enpresa lizitatzaileek euren eskaintzetan bere ezaugarriak zehaztuko dituzte.	Asimismo, se constata que el pick up que se viene utilizando hasta el momento, no se adecúa a las necesidades actuales del servicio y necesita ser sustituido por otro vehículo que pueda realizar las mismas labores que éste. Deberá ser un vehículo que cumpla con las actuales normativas sobre maquinaria y vehículos. Las empresas licitadoras detallarán en sus ofertas las características del mismo.
6.3.- GURDIAK, ERREMINTAK ETA GAINERAKO TRESNAK.	**6.3.- CARROS, HERRAMIENTAS Y DEMÁS ÚTILES.**
Adjudikaziodunak kontratatutako zerbitzuak ongi emateko beharrezkoak diren orgak, erremintak eta gainerako tresnak jarriko ditu, eta erreserbak izango ditu, sortu ohi diren gorabeherei erantzuteko.	La adjudicataria deberá aportar cuantos carros, herramientas y útiles se precisen para una buena realización del servicio contratado, y dispondrá de las reservas correspondientes para suplir las normales incidencias que surjan.
6.4.- MAKINAK ZELAN EROSI.	**6.4.- MODALIDAD DE ADQUISICIÓN DE LA MAQUINARIA.**
Enpresari soilik dagokio materiala eskuratzeko moduari buruz erabakiak hartzea, egokiena iruditzen zaion sistemaren arabera (erostea, rentinga, leasinga…). Zerbitzura eramandako makineria kontratuaren iraupenaren barruan amortizatuko da.	Corresponde en exclusiva a la empresa la decisión sobre modalidades de adquisición del material, según el sistema que crea más conveniente (compra, renting, leasing…). La maquinaria aportada al servicio se amortizará dentro del plazo del contrato.
Dena den, Udalari ez zaio inolako baliabide materialik itzuliko kontratua amaitzean, kontserbazio egoeragatik Udalak horietako bakarren bat hartzeko interesa agertzen ez badu behintzat, amortizazioa egiteko geratzen den zenbatekoa orduan kitatuz.	En todo caso, ninguno de los medios materiales revertirá al Ayuntamiento a la finalización del contrato, salvo que por su estado de conservación el Ayuntamiento muestre interés en hacerse con alguno, liquidándose entonces las cantidades que

	pudieran quedar por amortizar.
6.5.- MAKINAK ORDEZKATZEA.	**6.5.- SUSTITUCIÓN DE MAQUINARIA.**
Matxuraren bat edota beste gorabeheraren bat gertatzen denean, gorabehera horren berri eman beharko da 24 ordu pasatu baino lehen, eta makineria ordezkatu egin beharko da 72 ordu igaro baino lehen, elurteetan eta izozte haundietan erabili beharreko makineria izan ezik, lehenbailehen ordezkatu beharko delarik. Urtero, kontratistak erabili ez eta ordezkatu ez diren makinen ondorioz aurreztutako zenbatekoa emango/ordainduko dio udalari (udalak berak erabakitzen duenaren arabera). Horretarako, zerbitzuaren arduradunak entregatuko dituen hileroko gorabeheren agiriak aztertuko dira.	En caso de avería o cualquier otra incidencia se deberá comunicar la incidencia en un plazo no superior a 24 horas y sustituir la maquinaria antes de que transcurran 72 horas, a excepción de la maquinaria a utilizar en nevadas y fuertes heladas, que deberá sustituirse a la mayor brevedad. Anualmente la contratista compensará/abonará al Ayuntamiento (conforme a lo que decida el propio Ayuntamiento) aquella cantidad que se hubiera ahorrado el año anterior como consecuencia de aquellas ausencias de maquinaria no sustituidas. Para ello se revisarán los partes mensuales entregados por el/la encargado/a del servicio.
Makina berean behin eta berriz matxurak gertatuz gero, edota makina erabilezintzat jotzen bada, kontratistak beste makina batez ordeztu beharko du. Makina berriak ordeztu den makinaren antzeko ezaugarriak izan behar ditu.	En aquellos casos en los que se produzcan reincidentemente averías en una misma máquina, o que la máquina sea declarada inservible, la contratista deberá de sustituirla por una nueva. La nueva máquina deberá ser de similares características a la sustituida.
6.6.- MATERIAL, IBILGAILU ETA MAKINERIAREN ESKLUSIBOTASUNA.	**6.6.- EXCLUSIVIDAD DEL MATERIAL, VEHÍCULOS Y MAQUINARIA.**
Zerbitzuak emateko zehaztutako material, ibilgailu eta makinak kontratuaren xedeetarako erabili ahal izango dira soilik, eta ezin izango dira erabili kontratuarekin loturarik ez duten beste zerbitzu batzuk emateko, udalak berariaz agintzen ez badu edo baimentzen ez badu behintzat.	Todo el material, vehículos y maquinaria adscritos a la prestación de los servicios serán de uso exclusivo para el objeto del contrato, no pudiendo utilizarse en ningún caso para la prestación de otros servicios ajenos al mismo, salvo orden o autorización expresa del Ayuntamiento.
Eskaintzan proposatutako materiala eta makinak lizitatzailearen iritziz zerbitzua betetzeko nahikoa direla ulertuko du udalak; hala ez balitz, adjudikaziodunak zerbitzua emateko beharrezko materiala erosi beharko du, bere kontura eta arriskuak bere gain hartuta; material hori gehienez ere 30 eguneko epean eskuratzea eska diezaioke udalak.	El Ayuntamiento entenderá que el material y maquinaría propuestos en la oferta han sido considerados por la licitadora como suficientes para la realización del servicio y, de no resultar así, la adjudicataria deberá adquirir, a su riesgo y ventura, el preciso para su correcta prestación, pudiendo el Ayuntamiento exigir la adquisición de la misma en el plazo máximo de 30 días.

6.7.- INBENTARIOA.	**6.7.- INVENTARIO.**
Kontratistak, zerbitzua abian jarri eta 6 hilabetera, azkenik zerbitzuari atxikitako makinen eta tresnen inbentarioa aurkeztu beharko du.	La contratista, a los 6 meses de la puesta en marcha del servicio deberá presentar el inventario de maquinaria finalmente adscrita al servicio.
Zerbitzuak emateko azken eguna baino 3 hilabete lehenago, gutxienez, azken inbentario bat formulatuko du, eta elementu bakoitzaren egoera azalduko du.	Con 3 meses, al menos, de antelación a la fecha de terminación de los servicios, se formalizará un inventario final, indicando el estado de conservación de cada elemento.
6.8.- MAKINEN MANTENTZEA.	**6.8.- MANTENIMIENTO DE LA MAQUINARIA.**
Kontratista arduratuko da makinen mantentze-lanez, horiek egoera onean egon daitezen.	Será responsabilidad de la contratista realizar las labores de mantenimiento necesarias para que la maquinaria se encuentre en buen estado general.

Adjudikazioduna behartuta dago kontratu honetara bideratutako material guztiaren prebentziorako mantentze-plana aurkeztera, koipeztatzeko, azterketak egiteko, kanpoko garbiketarako, barrualdeko garbiketarako eta aldizka egin behar diren gainerako zereginetarako egin beharrekoak adieraziz. Hilero, egin diren makinen mantentze-lanen agiria aurkeztuko du, bai eta hautemandako matxuren eta gorabeheren agiria ere.	La adjudicataria estará obligada a presentar un plan de mantenimiento preventivo de todo el material destinado a este contrato, indicando las operaciones relativas a engrase, revisiones, limpiezas exteriores, limpiezas interiores, y demás operaciones periódicas que haya que realizar. Mensualmente presentará un parte del mantenimiento realizado en la maquinaria, así como las averías e incidencias detectadas.
6.9.- MAKINERIAREN IDENTIFIKAZIOA ETA ERROTULAZIOA.	**6.9.- IDENTIFICACIÓN Y ROTULACIÓN DE LA MAQUINARIA.**
Zerbitzuari atxikitako ibilgailu guztiak udalak zehaztutako diseinuaren arabera errotulatuta egongo dira, inolako zalantzarik gabe zerbitzuarekin identifikatu ahal izateko.	La totalidad de los vehículos adscritos al servicio estarán rotulados conforme al diseño que establezca el Ayuntamiento, de forma que su identificación con el servicio resulte inequívoca.

6.10.- URA HORNITZEA MAKINEI.	**6.10.- SUMINISTRO DE AGUA A MAQUINARIA.**
Garbitzeko ura erabiltzen duten makinek behar den ura udaleko saretik hartuko da, inolako kosturik gabe. Udalak adierazitako sute-ahoetatik eta ureztatze-ahoetatik hartuko da ur hori eta tratatu gabeko uraren erabilera lehenetsiko da. Ura arduraz erabiliko da, eta ur-kontsumoa udalak sasoi bakoitzean agintzen duen mugetara egokituko da.	El agua necesaria para la máquina hidrolimpiadora y barredoras se tomará de la red municipal sin costo alguno. Se realizará de los hidrantes o bocas de riego que indique el Ayuntamiento y preferentemente será agua sin tratar. Se deberá hacer un uso razonable del agua y el consumo deberá adaptarse a las limitaciones que en cada época se ordenen por parte del Ayuntamiento.
7.- INSTALAZIO FINKOAK.	**7.- INSTALACIONES FIJAS.**
7.1.- Orokortasunak	**7.1.- Generalidades**
7.1.1.- **Ibilgailuak gordetzeko eta aldageladun lokala**: Enpresa esleipendunak instalazio propioak edo alokatuak izan beharko ditu Urretxuko udalerrian, kontratuari esleitutako ibilgailuak, makinak eta erremintak gordetzeko, materialen biltegirako eta langileen aldageletarako.	**7.1.1.- Local para la guarda vehículos y vestuarios:** La empresa adjudicataria deberá contar en el municipio de Urretxu con instalaciones propias o alquiladas, con capacidad suficiente para albergar los vehículos, maquinaria y herramientas asignados al contrato, para almacén de materiales, así como para los vestuarios del personal.
Lokal horrek gutxieneko ezaugarri hauek izan beharko ditu: gutxienez, 200 m²-ko azalera, non behar adina leku izango duen zerbitzurako baliatuko dituen bi kale-garbigailuak, pick-up ibilgailua, ibilgailu berria eta esleipendunak zerbitzua emateko erabili nahi duen beste edozein ibilgailu edo makina gordetzeko.	El citado local deberá contar con las siguientes características mínimas: Disponer al menos de 200 m² de superficie para albergar las dos barredoras con las que cuenta el servicio, el vehículo pick-up, el nuevo vehículo del que dispondrá el servicio, así como el espacio suficiente para guardar cualquier otro vehículo o maquinaria del que quiera valerse la adjudicataria para prestar el servicio.
Aldi berean, lokalak aldageletarako, bainugeletarako eta bulegorako zehaztutako eremuak izan beharko ditu. Zerbitzu horiek guztiak solairuarte batean egon ahal izango dira, baldin eta beheko solairuak horiek izateko behar den lekurik ez balu.	Del mismo modo, el local deberá contar con una superficie destinada a vestuarios, baños y oficina, servicios todos ellos que podrán estar ubicados en una entreplanta sí la planta baja no dispusiera del espacio necesario para albergarlos.
Halaber, lokalak garbitegi bat izan beharko du, zerbitzuak izango dituen ibilgailuak eta makinak garbitzeko. Instalazio horiek beharrezkoa den hidrokarburo-bereizgailua izan beharko dute	Igualmente, el local deberá disponer de un lavadero que posibilite la limpieza de los vehículos y maquinaria con los que contará el servicio. Debiendo dichas instalaciones estar provistas del necesario separador de hidrocarburos con decantación

dekantazio primarioarekin eta indarrean den araudia betetzen duen 2m³-ko gaitasuna duen sarerako irteerarekin. Bereizgailu hori erabilpen-baldintza egokietan mantendu beharko da, eta urtean gutxienez 3 aldiz hustu beharko da.	primaria y salida a red de 2m³ de capacidad que cumpla con la normativa vigente. El citado separador deberá mantenerse en perfectas condiciones de servicio, vaciándolo al menos 3 veces al año.
Esleipendunari dagozkio lokala ingurumen arloan eta izan litekeen beste ezein araudiri egokitzearen lanak ekar ditzakeen gastuak.	Corresponderán a la adjudicataria los gastos que puedan suponer la adecuación del local a la normativa medioambiental y de cualquier otra índole que le pudiera ser aplicable.
Kontratistak ere funtzionamendu-gastuak bere gain hartuko ditu (ura, argia, telefonoa, interneta, gasa...), hala nola tasak, aseguruak, jarduera legeztatzea, etab.	Serán igualmente por cuenta de la contratista todos los gastos de funcionamiento (agua, luz, teléfono, internet, gas,...) que se produzcan, tasas, seguros, legalización de la actividad, etc.
Instalazio hauek Laneko Segurtasun eta Osasun Araudia beteko dute. Hori udal-teknikariek egiaztatuko dute, eta instalazio horietan aplikatu behar den araudia betetzen dutela eta zerbitzuari atxikitako langileek instalazio duinak eta egokiak dituztela ere egiaztatuko dute.	Las instalaciones cumplirán con lo establecido en la normativa sobre Seguridad y Salud en el Trabajo, circunstancia que será comprobada por los técnicos municipales, que constatarán que dichas dependencias cumplen con la normativa de aplicación y que el personal adscrito al servicio cuenta con unas instalaciones dignas y adecuadas.
7.1.2.- Erratz-makinek bildutako hondakinak uzteko kanpoko gunea: Udalak horretarako prestatutako gune bat jarriko du Mugitegi industrialdeko A bidean, kontenedore hermetiko bat bertan kokatzeko, erratz-makinek jasotako hondakinak botatzeko eta material toxikoen ihesa ekiditzeko, enpresa esleipendunaren erantzukizuna izango delarik gunea behar bezalako baldintzetan mantentzea.	**7.1.2.- Espacio exterior para el depósito de residuos recogidos por las barredoras:** El Ayuntamiento facilitará un espacio, habilitado a tal efecto, para ubicar un contenedor hermético que evite fugas de materiales tóxicos donde depositar los residuos recogidos por las barredoras en el vial A del polígono Mugitegi, siendo responsabilidad de la adjudicataria el mantenimiento de la zona en las debidas condiciones.
7.1.3.- Erdigunean dagoen lokal baten lagapena, makina txikiak eta abar gordetzeko: Udalak esleipendunari lokal bat utziko dio, erdigunean dagoena, Gaztelekuaren parean, poltsak eramateko orgen biltegi gisa erabiliko dena, bai eta zerbitzuak udalerriaren erdigunean gorde behar duen beste makina txikien biltegi modura ere.	**7.1.3.- Cesión de un local céntrico para el depósito de carros, pequeña maquinaria, etc,…:** El Ayuntamiento facilitará a la adjudicataria un local céntrico, ubicado frente al Gazteleku, para ser destinado como almacén de los carros portabolsas y otra pequeña maquinaria que el servicio precisa almacenar en una ubicación céntrica del municipio.

7.2.- Instalazio finkoen mantentze lanak.	**7.2.- Mantenimiento de las instalaciones fijas.**
Adjudikaziodunaren ardura da instalazio finkoen osagai diren material guztiak egoera onean eta garbi edukitzea.	Es obligación de la adjudicataria mantener la totalidad de los elementos que componen las instalaciones fijas en perfecto estado de conservación y limpieza.
8.- LANEN ANTOLAMENDUA ETA KONTROL SISTEMAK.	**8.- ORGANIZACIÓN DE LOS TRABAJOS Y SISTEMAS DE CONTROL.**
Adjudikaziodunak du zuzenean zerbitzuaren kalitatearen ardura, eta etengabe kontrolatu beharko ditu horrekin lotutako alderdi guztiak, egokien iruditzen zaion sistemaren bidez; eskaintzan, lanen kalitatea kontrolatzeko eta bermatzeko erabiliko duen kontrol-sistema edo plana aurkeztu behar du; langileen eta taldeen presentzia, maiztasunen betetze-maila, eta kexak eta gorabeherak ere adieraziko dira bertan.	La adjudicataria será directamente responsable de la calidad del servicio, controlando continuamente todos los aspectos con él relacionados por el sistema que considere oportuno, presentando en la oferta el Plan o sistema de control del servicio para controlar y garantizar, la calidad de los trabajos, presencia del personal y de los equipos, cumplimiento de las frecuencias, así como las quejas e incidencias.
Proposatzen diren neurriak definitu egin beharko dira, eta, ahalik eta xehetasun handienaz, honako alderdi hauek deskribatuko dira: jarduketa modua, ikuskaritzen emaitzak erregistratzeko metodoa eta neurri zuzentzaileak, hala badagokio, bai eta kontrolerako baliabide materialak eta kontrolaren arduraduna ere.	Se deberán definir las medidas que se proponen, describiendo con el mayor detalle posible la forma de actuación, método para el registro de los resultados de las inspecciones y medidas correctoras en su caso, así como los medios materiales y persona responsable del control.
Zerbitzuaren kalitatea betetzen den kontrolatzeko eta kalitate hori bermatzeko balio duen kontuan hartuta balioetsiko da plan edo kontrol-sistema hori, beste eremu batzuk kontrolatzeko ere baliagarria izan daitekeen arren.	El plan o sistema de control será valorado, en especial, en cuanto a controlar y garantizar el cumplimiento de la calidad del servicio, sin perjuicio de que pueda servir para el control de otros ámbitos.
Udalak etengabe ikuskatuko eta zainduko ditu kontratatutako zerbitzuak, lanak koordinatzeko, prestazioak kontrolatzeko eta, oro har, zerbitzuen prestazioa lan-eskaerak eta ezarritako zerbitzuen kalitate-helburuak nahiz ingurumenaren iraunkortasunari buruzko parametroak betetzeko gai dela egiaztatzeko eta bermatzeko.	Los servicios contratados estarán sometidos permanentemente a la inspección y vigilancia del Ayuntamiento para coordinar los trabajos, controlar las prestaciones y en general verificar y asegurar que la prestación de los servicios esté en condiciones de satisfacer las exigencias operativas y los objetivos de calidad de los servicios y parámetros de sostenibilidad medioambiental establecidos.

Zerbitzua ikuskatuko duenak egindako txostenen arabera, zerbitzuaren antolamenduan eta gauzatzean egoki iruditzen zaizkion zuzenketak edo aldaketak zehaztuko ditu udalak, eta horiek nahitaez bete beharko ditu adjudikaziodunak. Horretarako, erraz erabiltzeko moduko gailuak izan behar ditu, berehala gogo-beteko emaitzak eman ditzan.	A la vista de los informes emitidos por la inspección del servicio se determinarán por parte del Ayuntamiento las posibles correcciones o modificaciones que se estimen oportunas en la organización y prestación del servicio, las cuales tendrán carácter obligatorio para la adjudicataria. Para ello deberán prever unos dispositivos muy ágiles que permitan proporcionar resultados satisfactorios inmediatos.
Adjudikazioduna behartuta dago udalak kontratu honekin lotutako zerbitzuei buruz eskatzen dizkion txosten eta azterketa guztiak prestatzera.	La adjudicataria queda obligada también a preparar cuantos informes y estudios relacionados con los distintos servicios de este contrato que le sean solicitados por el Ayuntamiento.
Adjudikaziodunak, aldian-aldian, honako lan-agiri hauek aurkeztu beharko ditu (euskarri informatikoan):	La adjudicataria deberá presentar periódicamente los siguientes partes de trabajo (en soporte informático):
a.- Asteko lan-orria:	**a.- Parte semanal:**
- Zerbitzuen prestazioa, langileen kontrola, betetze maila, bukatu gabeko eremuak, aparteko lanak,…	Prestación de los servicios, control personal, grado de cumplimiento, zonas sin finalizar, trabajos extras,...
b.- Hileko lan-orria:	**b.- Parte mensual:**
Makineriaren eta ibilgailuen intzidentziei eta matxurei buruzko laburpena.	Resumen de incidencias y averías en la maquinaria, vehículos, incidencias, averías.
Ibilgailuen eta makineriaren kontserbazioa eta mantentzea.	Conservación y mantenimiento de los vehículos y maquinaria.
Lan egoeraren laburpena, bajak istripuagatik, gaixotasunagatik, absentismoagatik.	Resumen de la situación laboral, bajas por accidente, enfermedad, absentismo.
Ur kontsumoak.	Consumos de agua.
Aldizkako lan ez jarraituak, paperontzien garbiketa, olio orbanak, animalia hilak jasotzea, …	Trabajos periódicos no continuados, limpieza papeleras, manchas aceite, retirada animales muertos, …

9.- INGURUMENEKO GAIAK.	**9.- TEMAS MEDIOAMBIENTALES.**
NAHITAEZ BETE BEHARREKO INGURUMEN GAIAK.	**TEMAS MEDIOAMBIENTALES DE OBLIGADO CUMPLIMIENTO.**
9.1.- MATERIALAK ETA ONTZIAK	**9.1.- MATERIALES Y ENVASES.**
Produktuen ontziei dagokionez, indarrean dagoen araudia beteko dute, eta behar bezala etiketatuta eta bilduta egongo dira, eta dosifikazio-gailu zehatzak izango dituzte. Edukiera handiko ontziak izango dira edo produktu kontzentratuak erabiliko dira.	En cuanto a los envases de los productos cumplirán la normativa vigente al respecto, y estarán correctamente etiquetados, almacenados y deberán tener los aparatos de dosificación precisos. Serán envases de gran capacidad o se usarán productos concentrados.
Erabiliko diren materialek ez dute giroa kutsatuko, ez eta hondakin-urak ere, indarrean dagoen araudia betez.	Los materiales a utilizar no producirán contaminación en el ambiente, ni en aguas residuales de acuerdo con la legislación vigente.
Ibilgailuen eta makinen mantentze-lanak indarrean dagoen araudiaren arabera egingo dira.	Las operaciones de mantenimiento de vehículos y maquinas se realizarán de acuerdo con la normativa vigente.

Lizitatzaileak zerbitzua emateko erabil ditzakeen produktu guztien zerrenda aurkeztu behar du, eta produktu bakoitzaren egitekoa edo aplikatzeko gainazala, erabiltzeko dosifikazioa eta segurtasun-fitxa adierazi behar ditu.	La licitadora deberá presentar el listado de los diferentes productos susceptibles de ser utilizados en el transcurso del servicio indicando, para cada uno de ellos, su función o superficie de aplicación, la dosificación de uso y la ficha de seguridad.
Usainak eta orbanak deuseztatzeko erabiltzen diren garbiketa-produktuek I motako ekoetiketaren batean (hala nola Beltxarga Zuria, Europako Etiketa Ekologikoa edo baliokideren bat) jasotako baldintzak bete behar dituzte, produktuaren formulazioan konposatu kimikoak egoteari dagokionez.	Los productos de limpieza utilizados para la eliminación de olores y manchas cumplirán con los requisitos de composición de alguna ecoetiqueta Tipo I (como la Etiqueta Ecológica Europea, el Cisne Nórdico o equivalente) en cuanto a la presencia de compuestos químicos en la formulación del producto.
9.2.- ZARATAK	**9.2.- RUIDOS.**
Zarata baxuko makinak eta ibilgailuak erabiliko dira, indarrean dagoen araudia betez.	Utilización de maquinaria y vehículos con bajas emisiones sonoras, conforme a la normativa vigente.
Premia gabeko zaratarik ez egiteko, saihestu egingo dira langileen lanei egotz dakizkiekeen gehiegizko zaratak sortzen dituzten egoerak, eta langileek, lanean ari diren bitartean, ibilgailuak zuzen gidatuko dituzte, eta makinak eta erremintak ere kontuz erabiliko dituzte, eta ez diote elkarri garrasika hitz egingo.	Para evitar ruidos innecesarios se evitarán situaciones susceptibles de producir un ruido excesivo atribuible a las labores propias del personal, la actitud del personal adscrito al servicio deberá ser tal que durante el desarrollo de su trabajo se observe una conducción correcta de los vehículos y una manipulación cuidadosa de la maquinaria y herramientas, suprimiéndose los mensajes verbales a gritos.
Neurri handi batean ibilgailuen eta erreminten erabilerak nahiz horien mantentze-egoerak sortzen dituzten zaratak zainduko ditu adjudikaziodunak; horrez gain, debekatuta dago klaxona edo bestelako gailu akustikoak erabiltzea herrigunean.	La adjudicataria cuidará las emisiones sonoras que dependen en gran medida de la forma de utilización de los vehículos y herramientas y de su estado de mantenimiento, y además quedará prohibido el uso de bocinas o cualquier otro dispositivo acústico dentro del casco urbano.
Zerbitzuko eragiketak egiteari lotutako zarata minimizatzea bermatu behar dute ibilgailuek (kamioi- eta edukiontzi-kolpeak moteltzeko mekanismoak, zarata isolatzeko panelak makinetan...).	Los vehículos deberán garantizar la minimización del ruido asociado al desarrollo de las diferentes operaciones del servicio (mecanismos para la amortiguación de golpes, instalación de paneles aislantes de ruido en la maquinaria, entre otros).

9.3.- MAKINERIA: GAS EMISIOAK.	**9.3.- MAQUINARIA EMISION GASES.**
Erosi berri diren makinek kontratuaren hasieran indarrean zegoen nahitaezko araudia bete beharko dute gutxienez.	La maquinaria de nueva adquisición tendrá que cumplir como mínimo la normativa obligatoria vigente al inicio del contrato.
9.4.- HONDAKIN ARRISKUTSUAK.	**9.4.- RESIDUOS PELIGROSOS.**
Olio lubrifikatzaileak eta ibilgailuen eta makinen beste produktu batzuk bereizita jasoko dira, eta baimendutako kudeatzailearen bidez kudeatuko dira.	Los aceites lubricantes y otros productos de vehículos y maquinaria se recogerán separadamente y gestionarán a través de gestor autorizado.
9.5.- BESTE HONDAKIN BATZUK.	**9.5.- OTROS RESIDUOS.**
Gainerako hondakinak, landare-hondakinak ez direnak eta hondakin arriskutsuak ez direnak, herriko gaikako bilketarako frakzioetan bereiziko dira, eta euren birziklapenerako esleipendunaren esku utziko diren bide publikoko edukiontzietan utziko dira.	El resto de los residuos recogidos mediante los carros de recogida selectiva, los no vegetales y no peligrosos, se separarán en las fracciones de recogida selectiva urbana y se depositarán en los contenedores puestos a disposición de la adjudicataria para su correcto reciclaje.
9.6.-URA.	**9.6.-AGUA.**
Udalak adierazitako ur-hartuneetatik lortuko da, eta lehentasunez tratatu gabeko ura erabiliko da. Uraren zentzuzko erabilera egin beharko da, eta kontsumoa garai bakoitzean Udalak agintzen dituen mugetara egokitu beharko da.	Se obtendrá de los hidrantes o bocas de riego que indique el Ayuntamiento y se empleará prioritariamente agua sin tratar. Se deberá hacer un uso razonable del agua y el consumo deberá adaptarse a las limitaciones que en cada época se ordenen por parte del Ayuntamiento.
Erabiltzen duen ura behar bezala kudeatzeko konpromisoa hartu behar du esleipendunak, eta horretarako, likidoak dituzten hondakinen kontaktua murrizteko neurriak hartuko ditu (euri-urak barne), ubide naturaletara isurketarik ez egiten ahaleginduko da eta ur hori berrerabiltzen saiatuko da (betiere bideragarria denean). Horretarako berariazko neurriak zein diren zehaztu beharko da.	La adjudicataria se compromete a realizar una correcta gestión del agua utilizada, adoptando las medidas necesarias para reducir el contacto de los residuos con líquidos (agua de lluvia incluida), evitando vertidos a cauces naturales y priorizando su reutilización (siempre que sea factible). Se deberán especificar cuáles son las medidas que se aplicarán para este fin.
10.- AZALPEN-MEMORIA (B fitxategia).	**10.- MEMORIA EXPLICATIVA (fichero B).**
Zerbitzuaren azalpen-memoria "MEMORIA" izeneko B fitxategian joango da; ondoren adierazten diren dokumentu eta eranskin hauek izango ditu	La memoria explicativa del servicio, que irá en el fichero B "MEMORIA", contendrá como mínimo los siguientes documentos y anexos que se

gutxienez, eta formatu digitalean aurkeztuko da.	presentarán en formato digital.
Inola ere ez dira sartuko "MEMORIA" gutun-azalean proposamen ekonomikoa edota modu automatikoan kuantifika daitezkeen adjudikazio-irizpideei dagozkien bestelako datuak; horiek "C" fitxategian sartu behar dira.	**En ningún caso deben de incluirse en el presente sobre "MEMORIA" la proposición económica o cualesquiera otros datos correspondientes a criterios de adjudicación cuantificables de forma automática y que deberán incluirse en el fichero "C".**
1) Eskainiko den zerbitzu bakoitzaren banakako azterketa (Baldintza Teknikoen Pleguan zerrendatutako guztiak); azterketa horretan, honako alderdi hauek jasoko dira gutxienez: zerbitzuaren justifikazioa eta tamaina, datu-bilketa, errendimenduak, zerbitzuaren diseinua, lanerako metodologia, aukeratutako garbitze-sistema, gauzatze-sistema (eskuzkoa edo mekanikoa; azken kasu horretan, erabiliko diren makinak eta erremintak). Horrez gain, zerbitzu bakoitza nola gauzatuko den, langileak zeintzuk diren, taldeak nola osatu diren, maiztasunak eta lanen banaketa (ordutegiaren arabera eta urtean zehar) deskribatuko dira. Era berean, makineriaren ibilbideak definituko dira, urteko kilometroak murriztu ahal izateko.	1) Estudio individualizado relativo a cada tipo de servicio a prestar (la totalidad de los enumerados en el Pliego de Cláusulas Técnicas) en el que como mínimo se deberá hacer referencia a: justificación y dimensionamiento del servicio, toma de datos, rendimientos, diseño del servicio, metodología del trabajo, elección del sistema de limpieza, tipo de sistema de ejecución (manual o mecánico, en este último caso maquinaria o herramientas a utilizar) describiendo el modo de ejecución de cada tipo de servicio, personal del servicio, constitución de los equipos, frecuencias y distribución horaria y anual de las tareas. Asimismo, se definirán las rutas de la maquinaria con el fin de reducir los kilómetros anuales de las mismas.
2) Giza baliabideak: honako alderdi hauek jasoko dituen proposamen xehakatua: langile-zerrendari buruzko aurreikuspenak, kategorien araberako organigrama, zuzeneko langileak, lantegietako, administrazioko eta ikuskaritzako langileak, zuzendaritza edo gerentzia (beharrezkoak diren langile guztiak, lanaldiaren ehunekoa, kategoria profesionala, antzinatasuna eta abar ere kontuan hartu behar dira), lan-ordutegiak, kontratu berrietarako irizpideak, erretiroak, langileen prestakuntza-plana, segurtasunerako eta osasunerako plana, pizgarriei buruzko plana, jantziak, babes pertsonalerako ekipamendua, etab.	2) Medios humanos: Propuesta detallada de las previsiones de plantilla, organigrama por categorías, personal directo, personal de talleres, de administración y de supervisión, dirección o gerencia, (deberá recogerse todo el personal necesario, porcentaje de jornada trabajada, categoría profesional, antigüedad,..), horarios de trabajo, criterios en nuevas contrataciones, jubilaciones, plan de formación del personal, plan de seguridad y salud, plan de incentivos, prendas de vestuario, equipo protección personal, etc.
3) Baliabide materialak: ekipamenduen eta materialen izen-zerrenda, titulartasuna, deskribapena, kopurua, ezaugarri teknikoak, aukeraketaren arrazoiak, eskatzen den araudia (zaratak, usainak, hautsa sortzea...) betetzen edo gainditzen dutela agertzen duen egiaztapena, uraren kontsumoa, erregai fosilen	3) Medios materiales: Relación nominal de equipos y materiales, titularidad, descripción, cantidad, características técnicas, justificación de la elección, justificación o superación del cumplimiento de la normativa exigible (ruidos, olores, generación polvo…), consumo de agua, consumo de

kontsumoa, ordezko energien kontsumoa, makinen eta ibilgailuen mantentze-plana, horien erabilera-indizea, erreserbako makinak eta ibilgailuak, ordezkatzeko edo berritzeko erregimenak, ekipamendu informatikoak eta komunikaziokoak, aseguruak, etab.	combustibles fósiles, consumo de energías alternativas, plan de mantenimiento de maquinaria y de los vehículos, índices de utilización de los mismos, maquinaria y vehículos de reserva, regímenes de sustitución o renovación, equipos informáticos y de comunicación, seguros, etc.
4) Planoak: alde batetik, udalerri osoari dagokion plano-azterlan bat aurkeztu beharko da, eta garbiketa-zerbitzuaren mota eta gune bakoitzerako maiztasuna, eskuz, makinaz, hidrogarbigailu bidez garbituko diren guneak, lantaldea eta abar zehaztuko dira bertan; eta, bestetik, beste plano batzuk zerbitzu mota bakoitzeko, sektoreak, ibilbideak eta maiztasunak adieraziz. Eta, azkenik, gunekako xehetasun-plano bat ere aurkeztu beharko da, gune bakoitzerako zerbitzu guztiak adieraziz.	4) Planos: Se deberá presentar, por un lado, un plano-estudio relativo a la totalidad del municipio en el que se especifique el tipo de servicio de limpieza y frecuencia para cada zona, zonas de barrido manual, mecánico, pistoleo mediante hidrolimpiadora, brigada, etc, y, por otro lado, otros planos para cada tipo de servicio indicando sectores, recorridos, frecuencias, y por último un plano de detalle por zonas, en las que se indique la totalidad de servicios para cada zona.
5) Herritarrentzako jabetze eta komunikazio kanpainak: proposatutako kanpaina bakoitzaren azalpen-memoria, berorren irismena eta tamaina ongi ulertzeko behar diren xehetasunak, gauzatzeko epea edo plana edota egutegia, eta berori aztertzeko eta balioesteko beharrezkoak diren gainerako gorabeherak adieraziz.	5) Campañas de concienciación y comunicación ciudadana: Memoria explicativa de cada una de las campañas que se propongan con el grado necesario de detalle para la compresión de su alcance y extensión, indicación de plazo o plan o calendario de ejecución, y demás circunstancias convenientes para su consideración, estudio y valoración.
6) Kalitate- eta kontrol-sistemak: eskaintzan aurkeztuko da lanen kalitatea kontrolatzeko eta bermatzeko erabiliko den zerbitzuaren kontrol-sistema edo plana; proposatzen diren neurriak definituko dira, eta jarduketa modua, ikuskaritzen emaitzak erregistratzeko metodoa eta, hala badagokio, neurri zuzentzaileak ahalik eta xehetasun handienarekin deskribatuko dira, bai eta erabili ahal izango diren baliabide material eta giza baliabide guztiak ere.	6) Sistemas de calidad y control: Se presentará en la oferta el Plan o sistema de control del servicio para controlar y garantizar la calidad de los trabajos, definiendo las medidas que se proponen, describiendo con el mayor detalle posible la forma de actuación, método para el registro de los resultados de las inspecciones y medidas correctoras en su caso, así como todos los medios materiales y los medios humanos de que se dispondrá.
7) Ingurumen kudeaketa. Esleipendunak honako dokumentazioa aurkeztu beharko du, ondoren agertzen den moduan:	7) Gestión Medioambiental. La licitadora tendrá que aportar la siguiente documentación y del modo especificado a continuación:

Zerbitzuaren exekuzioa eta lanen deskribapen memoria. Gutxienez honako informazioa bildu beharko du: - Erabiliko diren produktu guztien zerrenda eta bakoitzaren segurtasun fitxa. - Zaratak gutxitzeko hartuko diren neurrien azalpena. - Uraren kudeaketa egokia bermatzeko jarraituko den prozedura. - Eskatutako derrigorrezko irizpideak betetzen dituzuela bermatzen dituzten egiaztagiriak aurkeztu behar dira.	Memoria descriptiva de las tareas y ejecución del servicio. Como mínimo incluirá la siguiente información: - Listado de productos que se van a emplear y sus fichas de seguridad. - Medidas que se tomarán para minimizar los ruidos. - Procedimiento que se llevará a cabo para garantizar la correcta gestión del agua. - Documentación acreditativa que avale el cumplimiento de las especificaciones obligatorias requeridas.
11.- "PROPOSAMEN EKONOMIKOA ETA ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK" ("C" fitxategia).	**11.- "PROPOSICIÓN ECONÓMICA Y CRITERIOS DE ADJUDICACIÓN" (fichero "C").**
C fitxategian, honako hauek aurkeztu beharko dira:	En el fichero C se deberá presentar:
1) Administrazio-pleguan adierazitako ereduari egokitzen zaion proposamen ekonomikoa.	1) La proposición económica ajustada al modelo indicado en el pliego administrativo.
2) Horiez gainera, azterlan ekonomiko xehatua eta unitateko prezioak aurkeztu beharko dira.	2) Además, se deberá presentar un estudio económico detallado y los precios unitarios.

DILIGENCIA: Para hacer constar que el presente Pliego ha sido aprobado por el Ayuntamiento Pleno en sesión celebrada el 23 de febrero de 2023.
EGINBIDEA: Udalbatzak 2023ko otsailaren 23an egindako bileran onartu zuen Plegu hau.

Urretxun, 2023-02-24
Idazkariak

MARIA JOSE BEGUIRISTAIN ZABALO - 15994003X

Firmado digitalmente por MARIA JOSE BEGUIRISTAIN ZABALO - 15994003X
Fecha: 2023.02.24 13:01:54 +01'00'